



uk

215. zenbakia / 2012ko ekainaren 5a

# Getxo ezagutzeko ibilbideak

**MAIATZA eta EKAINA**

GETXOKO ONDARE ETNOGRAFIKOA ETA TOPONIMIA EZAGUTU NAHI DUZU?

## Etorri gurekin larunbat goizetan!

### Hezeguneak

Eguna: Maiatzaren 19a · Ordua: 9:00ak · Tokia: Kiroldegiko atean  
Gobela ibaia - Boluako Fadura - Boluntzarreta - Santa Koloma - Bonbaren etxea

### Betiko Getxo

Bizikletaz egingo da, ekarri bizikleta!!!  
Eguna: Ekainaren 2a · Ordua: 9:00ak · Tokia: Andra Mariko elizan  
Elizaldea - Arteaga/Diliz - Saratsaga - Askorri - Atxagana - Tunnelboka - Elizaldea

### Getxo barria

Eguna: Ekainaren 9a · Ordua: 9:00ak · Tokia: Neguriko Karmengo elizan  
Karmen eliza - Gasolindegia - Atxekolandeta - Bola hondartza - Zugatzarte/Kaia - Txurruka

### Kostaldeko Getxo

Eguna: Ekainaren 16a · Ordua: 9:00ak · Tokia: Etxetxu  
Etxetxu - San Nikolas Ermita - Jeneratxu - Usategi - Landene

**EUSKARAZ IZANGO DIRA**

IZENA EMATEKO EDO INFORMAZIO GEHIAGORAKO:  
688 635 350 bulego orduetan  
getxo.toponimia@gmail.com  
<http://getxokotoponimia.blogariak.net>

## Dacia Sandero 5.790€<sup>1</sup> tik hasita

## Dacia Duster 10.400€<sup>2</sup> tik hasita

**URTEBETEZ<sup>3</sup> ASEGURUA DOAN**

**3 URTEZ<sup>4</sup> BERMEA EDO 100.000 km**

Dacia España | Dacia ESP | [www.dacia.es](http://www.dacia.es)


**Dacia Sandero:** Kontsumo mistoa (l/100Km) 4,0tik 7,3ra. CO<sub>2</sub> isuria (gr/Km) 104tik 169ra.  
**Dacia Duster:** Kontsumo mistoa (l/100Km) 5,0tik 8,0ra. CO<sub>2</sub> isuria (gr/Km) 130tik 185era.

**BILBO BERRI** Jon Arrospide, 20. Tel. 94 448 39 00. Deustu - Bilbo  
**LEIOA BERRI AUTO** Iparragirre Etorbidea, 24. Tel. 94 480 42 90. Leioa

Dacia recomienda **elf**

### UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarteak  
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337  
ZUZENDARIA: Irantzu Sagarrinaga  
ERREDAKZIOA: Zuberora Iturburu, Julen Nafarrate, Nere Gijarubia, Irantzu Sagarrinaga  
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka  
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega  
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Armando Llamosas, David Crestelo Kres, Algortako Berto Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak  
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel  
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)  
FILMAZIOA: Laster Grafika S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00  
ISSN: 1576-6799  
© Boluntzarreta



#### ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Tratatu txarren biktimak artzatzeko EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

Bizkaiko Foru Aklundia Diputación Foral de Bizkaia Kultura Saila Departamento de Cultura

## Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Plentziako margo-isurketa.
6. FACEGUK. Nori emongo zenioke Errentako PFEZeko %0,7?
7. LEHEN ETA ORAIN. Gorliz, 2007ko urtarria.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Begoña Barbado.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

#### SAKONEAN

26. ALBUMA. Garden Centerreko zoo txikia.
28. ARGAZKIA. Egja Hotela.
30. BERBETAN. Gotzon Barandiaran.
34. FOTOGRAFIA. Asier Mentxaka.
40. SAKONEAN. Saski ekologikoak.

#### KULTURA ETA AISIA


42. ZINEMA. Cinegourland Getxon.
43. MUSIKA. Getxoko Blues Jaialdia.
44. LIBURUAK. Bidegileak bilduma.
45. KIROLAK. Emakumezkoen Euskal Herriko futbol-kopa.
46. ELKARRIZKETA. Ander Larunbe.

#### AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Alberjina bakailaoagaz.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Sopelako Frontoian, 1982.
54. AITORMENAK. Ane Gabarain.

Azala: Asier Mentxaka

[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz)



30 Gotzon Barandiaran

#### Berbetan

Literaturiaz, Ahotseneaz, Katamaloaz, bere hiru liburuez eta abarrez jardun dugu Larrabatzuko idazleagaz.



11 Begoña Barbado



54 Ane Gabarain

## aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....  
Kalea/zenb..... Herria.....  
e-mail.....  
Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero  20 euro  30 euro  50 euro  
 beste kopuru bat ..... euro

Kontu zenbakia (20 digito)  
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

**Armando Llamosas**

&gt; arkeologoa


# Kultura nonahi, beti ikusi ez arren

**Askotan** entzuten dugu Kultura giza-kiaren manifestazio guztiek eratzen dutela. Errealitatean, ordea, Kultura zer den eta zer ez bereiztea zail egiten zaigu, batez ere eguneroko agerpenetan. Berehala dakigu zer den kultura Kultura ofiziala denean, egunkarietan agertzen denean edo administrazioak zerbait kultura dela esaten digunean. Guggenheimen egiten dena beti da kultura, jakina; piperrik ere ez ulertu arren. Kultura antzerkia ere bada, zinema (ez beti, ezta?) eta beste ekimen eta ekitaldi asko.

Hala ere, gehienetan, kultura eguneroko kontua da. Xehetasun txikiak eratzten dute, nabaritzen ez ditugun elementu txikiak. Batzuetan, zerbaitek ziztatzeko gaitu, esnatzen gaitu, eta konturatzen gara naturaltasunez egiten duguna ere, gure eguneroko "huskeria" asko, gure nortasunean dagoela, gure izaeran, pertsona gisa eta herri gisa; hau da, kultura da, gure kultura (ez ona, ez txarra; geurea, besterik ez).

Horrela gertatu da azken berbatxangoekin hiru gai arrunt ukitu dituzte: Ur azpiegiturak, errota, eta etnobotanika. Berbots, Aitxu eta Egizuk antolatutako berbatxango horiek oso bitxiak izan dira. Errotez gain, zaharrak direnez bistan dugu gure irina egiteko ohiko metodoak kultura direla, beste bi kasuak ustekabea izan dira. Ikusi dugu: Erandioko latsarria, Getxoko Malakateak eta Plentziako urtegi zaharra, gehienak utzita eta hondakin bihurtuta (Erandiokoa izan ezik, udalak berreskuratu du-eta). Aho bete hortz geratu gara azalpenak entzutean. Adreilu horien atzean eta ur gardenaren ostean historia eta ondarea dago, eta ez makala! Elementu xumeak, txikiak eta baztertuak badira ere, gure historian eta gure herrietako bizitzan sekulako garrantzia izan dute.

Beste asteburu batean etnobotanika zen jomuga. Landareak, erabilerak, paisaia, bizitza tradizionala... hamaika kontzeptu



agertu zitzaizkigun. Den-denak ere gure kultura eta gure historiarekin lotuta, eta guztien artean gure historia eta gure kulturaren oihala josten.

Horretaz gain, duela gutxi Sopelan esaera zaharrekin egon ziren jo eta ke. Modernitateak zapalduta, galtzar dagoen beste altxor bat, euskaraz zein gazteleraz; Berrito eguneroko kontua, berriro kontu-

ratu gabe ihes egiten digun nabardura bat.

Zein handia den Kultura hitza! Zenbat ertz! Zenbat bazter, bere aberastasuna ez-kutatze! Eta zenbat arrakala, aberastasan hori galtze! Zorionez, batzuetan ekimen txikiak eta xumeak, elkarte, talde edo pertsona xumeak egindakoak ere, gure aurrean jartzen dizkigute gure Kultura horren zatiak. Eskerrik asko! ○

## gu geu

### Amets biziak

Herri andana legez, eskualdeko herriak ere zuri-gorri jantziarazi dituzte Lezamako futbolarien abenturek. Aurrekoan genion legez, benetan ederra izan da, itzela, aurtengo Athletic-en denboraldia; eta euren ekimenez zaleek bizi ahal izan dituztenak ez dira ahaztekoak... Ametsak amets izateari uzten dietelako, bakarrik, bizi egiten direnean; eta aurtengoan Athleticeko jokalariek danek ametsa bizitzen lagundu diete zaleei... Amets biziak izan dira gainera! Azkenean, ez da egon eskuetan zer goratu, baina besoak gorantz, eskumutur biak estututa, altxatzeko harrotasunik eta duintasunik ez bekizkie falta! Ez jokalarie, ezta zaleei ere!

Gehiegikeriaren bat edo beste ere izan da, askok eta askok krisiaren dan-danak ahaztu dituzte, erakunde publikoek honetan ez dute murrizketarik egin... "Herriak eskatzen ei zuen, herrikoia zen erroka..." Ea arrazoi hori beste hainbatetan, herritik sortutako beste egitasmo herrikoian andanatarako ere, aintzat hartzen duten; hori dugu guk esperantza... Agian, zale askoren antzera, esperantzara kondenatuta gaudela sinestekotan gaude... Bitartean, jarrai dezagun ametsak sortzen eta bizitzen!!!

UK-ko lan-taldea



**Isuriak...!** Argazki deigarria jaso genuen iragan maiatzaren 18an, Plentziatik. Bertako Bildu udal-taldeak bidali zigun, goizean gertatutako margo-isurketa zela-eta. Haien arabera, goizeko 10:00ak inguruan isuri zuten margoa Plentziako itsasadarrean; herriko alde historikoko eraikin batean lanak egiten zebiltzala eta, bertako langile batek soberako margo zuria bota ei zuten Artekaleko estolda-zulo batetik. Estolda horrek itsasadarreara emoten du eta han amaitu zuen margoak. Auzokideak ipini ei ziren harremantetan udaltzainakaz, gertatutakoaren barri emoteko. Horrela zegoen ingurua isurketaren ostean. ○ / Argazkia: Bildu Plentzia

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

# Errenta Aitorpeneko PFEZaren %0,7 nori emongo zenioke?



Bilbo

**Elena Latorre Rodriguez**

> Erizaina

Nik Gobernu Kanpoko Erakunde-  
ren bati emongo nioke, eliza ez baitut  
gustuko. Baina irabazi-asmorik gabeko  
talderen bat izan beharko luke. Horietaz  
gain, behartsuei emongo nieke, hau da,  
behar handiena daukatenei. Baina eli-  
zari ez.



Getxo

**Jon Larrinoa**

> Pedagogoa

Normalean ez dut laukitxo bat ere  
markatzen, ez nieke emongo ez GKE  
horiei, ez elizari. Bankuei eta erakunde-  
ei ere sekula ez nieke emongo. Nik  
gurago nuke ume txiroei emon. Behar  
handia izango dute-eta. Jakingo banu  
diru hori nora doan, ume horiei emongo  
nieke, seguru.



Getxo

**Alex Sanchez**

> Musikaria

Agian Gurutze Gorriari, lan ona egi-  
ten du-eta. Elizari ez diot emon gura,  
eta bestela, GKEen kasuan ez dakit  
zeini emongo niokeen. Hau da, jakingo  
banu zehazki nora bideratzen duten di-  
rua, gauza onak egin ditzakeen talde-  
ren bati emongo nioke; zehazki marka-  
tuko nuke talde horren laukia.



Getxo

**Eguzkiñe Hormaza**

> Langabetua

Batzuetan, zuzenean emon diot  
Gurutze Gorriari, kalean, Errenta Aitor-  
pena egitera itxaron gabe. Aitorpenean  
GKEei emongo nieke, uste baitut jen-  
deari laguntzeko modu ona dela. Elizari  
ez nioke emongo, ez daukat konfiantza  
berarengan.



Leioa

**Gorka Jauregizuria**

> Euskara irakaslea

Ez dut inoiz pentsatu nori emon,  
baina posible balitz amnistiaren alde lan  
egiten dutenei emongo nieke, behar  
handia daukate-eta, une honetan, su-  
posatzen dut ezin zaiela emon. Baina  
nik, emongo nieke egiten duten lana-  
gaz jarraitu ahal izateko.



Getxo

**Sorkunde Guraia**

> Euskara irakaslea

Elizari inondik inora, beitu orain ate-  
ratzen ari den guztia diru hori dela-eta.  
Nik Bizarra Lepoan euskara taldeari  
emon gura diot; ez da GKE, baina hur-  
bil daukagu. Euskararen alde lan han-  
dia egin du eta lortu du Getxoko eus-  
kaldunok elkar ezagutu eta alkarregaz  
harremanetan ipintzea.



## Iraganez doa denbora\* beti / GORLIZ, 2007KO URTARRILA

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

## uribitakora &gt; adreilua



Berango, 2011ko iraila

Testua: **Maialen Markaida** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

\* Doinua: Ez nau izutzen negu hurbilak

Batzuek gura dute baratza beste batzuek txaleta. Bata daukagu berduraz eta bestea jendez beteta. Barazki eta pertsona artean lortu behar da oreka, berdea soilik ibaietako ura izango da-eta.

Noski, aurrera eginez ezin iraganean geratu. Behar genuke aurreko bide hori jarraitzen saiatu. Eta erdian momentu batez egin bagara nekatu, arazo gabe atseden hartu (e)ta atzera begiratu.

Nahiz (e)ta geroa agian ez den iraganaren sostengu; nahiz (e)ta bidea geroz (e)ta gehia(go) eskubitara zuzendu, nahiz ta berria eraiki eta aurreko guztia kendu, oraindik ere garai bateko zuri-beltzak jarraitzen du.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)

**INPRIMATEGIA GARA!**  
1000 gutun-orri + 500 gutun-azal + 200 txartel  
**229€**  
Eskaintza berria  
**5 BLOK Debalde**  
Eskaintza uztailaren 15ean bukatuko da  
cianoplan  
www.cianoplan.es

## izarren distira &gt; sormen topaketak



Info+: [izarrendistira.com](http://izarrendistira.com)

**Izarren Distira** ekimenaren barruan, Izarren Distira Galako talentu lehiaketa (udazkenean egin ohi da) baino lehena-go, bestelako eskaintza aurkeztu dute Getxo aldean; aipatu udalerriko gazteentzako Sormen Topaketak antolatu dituzte. Topaketok ekainaren 27an eta 28an egingo dira, Urduñako aterpetxean. Getxotzar gazteek ludikotasunaren baitan Sormena lantzea helburu du eskaintza

honek, eta zenbait lantegi eta ikastaro trinko eskainiko dituzte Getxoko Udalarren Euskara Zerbitzuaren ekimenez. Jorratuko diren diziplina artistikoak ondorengoak dira: antzerki-teknikak, bideogintza, musika, gorputz adierazpena, kamisetak kustomizatzea, e.a. Izena emoteko epea ekainaren 12an amaituko da, eta 20 euroko prezioa du (autobusa, asegu-rua, otorduak, aterpea eta materiala). ○

## ueu &gt; udako ikastaroak

**Udako Euskal Unibertsitateak** urtero antolatzen dituen Udako Ikastaroek 40 urte betetzen dituzte aurten, eta hala 40 ikastaro eskainiko dituzte ekainean eta uztailean. Horrenbestez, ikastaro-eskaintza zabala eskainiko dute eta horietarako izen-emotea ere zabalik dago daborduko. Ikastaroak Eibarren, Baionan eta Iruñean izango dira. Ohi legez, ikastaro bakoitzak bere iraupena, egoitza eta prezioa dauka.

Artea eta Musika, Giza Zientziak, Gizarte Zientziak, Ingeniaritza eta Teknologia, Osasun zientziak, eta Zientziak alor nagusien barruan sailkatu dituzte aipaturako 40 ikastaroak; beraz, eskaintzan interesa daukanak, berbarako, UEUren webgunera jotzea dauka, beren-beregi eskaintzen dituzten ikastaroen gai zehatzak, baldintzak eta nondik norakoak ezagutzeko. ○



Info+: [www.ueu.org/ikasi/udako-ikastaroak](http://www.ueu.org/ikasi/udako-ikastaroak)

## aek &gt; udako eskaintza



Info+: [www.aek.org](http://www.aek.org)

“**Atera euskara** eguzkitara” lemapean aurkeztu du AEK-k aurtengo udako eskaintza. Uztailean, abuztuan ala irailean, euskaltegi eta barnetegietan euskara ikasi eta praktikatzeko hainbat aukera dago. “Barnetegiak egun osoan euskaraz bizitzeko aukera paregabea emoten dutela aprobetxatuz”, barnetegi mota ezberdinak antolatu ditu AEK-k Ipar zein Hego Euskal Herri- an: “Euskalduntze barnetegiak, titulu eta

maila ofizialak egiaztatzeko prestatzekoak, familientzako barnetegiak, ibiltariak, mendikoa, xiberera ikastekoa eta ikasturte honetan berrikuntza moduan: AEK-k eta Bertsozale Elkarteak elkarlanean antolatutako bertsolaritza barnetegiak”. Gainera, hurbileko euskaltegietan ere udako eskaintza berezia egongo da. Eskaintza zabal horregaz, ziur ez dela euskaraz gozatzeko aukerarik faltako! ○

## saiazgetaria

HOTELA  
Roke Deuna 25  
20808 Getaria  
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

[www.siazgetaria.com](http://www.siazgetaria.com) / [info@siazgetaria.com](mailto:info@siazgetaria.com) / Tf. (+34) 943 140 143

Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure  
bannerra

Gehitu  
herri bat

Proposatu  
zerbait

# Euskal Herrian ihesi

## Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?  
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko  
egun berezirik gomendatzen al dute?

**Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria**



### Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi  
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko  
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

ihesi.com



ARGIA  
proiektua

[erretratua]



“Oso familiarra zen; auzoko betiko jendea etortzen zen erosketak egiten eta kartetan jokatzeko”

## Begoña Barbado > Algortako azken taberna-denda

**Etxeko erosketak** egin poteak hartzen diren bitartean; hura bai ametsa askorentzat! Supermerkatuko ilara luzei itxaron barik, inolako estres barik... Ametsa baino, errealitatea izan da orain gutxira arte herri askotan. Algortako Hezetasuna auzoan, berbarako, azken taberna-dendak 2010. urtean itxi zuen, Begoña Barbado eta bere senar zenak gidatutakoa: “1955. urtean zabaldu genuen. Nire familia goiko pisuan bizi zen, eta aitak okindegia zabaldu gura zuen beheko aldean, baina ez zioten utzi. Orduan taberna-denda zabaldu genuen”. Baina ‘El Caserio’, ‘La Parra’, edo ‘El Corte Ingles’ legez ezagun izan dena, denda huts bat baino gehiago izan da, auzoaren topagunea izan da, Hezetasuna auzoari epeltasuna eman diona: “Oso familiarra zen, auzoko betiko jendea etortzen zen erosketak egiten eta kartetan jokatzeko; txoko bat bezalakoa zen”. Urteakaz auzoa aldatzen joan, eta landak eta baserriak zeuden lekuan, etxebizitza-blokeak eta errepideak agertu dira: “Gura nuke auzoak lehen bezala jarraitzea, bere nortasunagaz”. Inguruan supermerkatuak zabaldu arren, dendako atek zabalik jarraitu zuten 2010. urtera arte: “Eco supermerkatua zabaltzeak kalte egin zigun, hala ere, ez dugu inoiz itxi, ez oporrik ez ezer”. Egun, taberna biltegi legez erabiltzen duen arren... “Badira etxera oraindino gerturatzen direnak, baina ez erosketak egiten, niri bisita egiten baizik!”

Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

# Udan zer egingo duzu?

Udarako **ikastaro eskaintza zabala** dago Getxon **umeentzat, 3.146 leku dago** kirol zein udako **ikastaroetan eta** hainbat motatako **udalekueetan**: musika, **kirola**, Txikigune, **Bapiruke...**

**Uda honetan ere egongo da zer egin eta non aukeratu. Getxoko umeek ikastaro eskaintza zabala daukate, bai Udalak antolatutako ekintzen artean, bai herriko elkarteek antolatutakoen artean. Izena eman dezakezu, eta hobe ahalik eta lasterren.**

**Urtea badoa aurrera** eta uda iristekotan da. Urtero legez, umeentzako ikastaro eta udaleku eskaintza zabala dago Getxon, bai Udalak antolatuta, bai elkarteek antolatuta. Orotara, 3.146 leku dago eta izenemateak hasi dira. Eskaintza begiratu, eta hausnartu ostean lehenbailehen eman izena, plaza barik lotu orduko.

Udalak 2.276 leku eskainiko du 5 eta 12 urte arteko umeentzat antolatutako jardueretan: hiriko udalekuak, musika udalekuak, Getxo Kirolak kirol ikastaroak eta udako ikastaroak. Gainera, Getxo Kirolak laguntzagaz bultzatutako Kirol Campusetan 500 umerentzako lekua izango da, Bizarra Lepoan elkarteak antolatutako udalekueetan 330 umerentzat eta Fadurako Txikigunean beste 40rentzat. Baina goazen banaka.

Hiriko udalekueetan Getxon 2000 eta 2007 urteen artean (biak barne) jaiotako umeek parte har dezakete, euskara maila edozein dela ere; 216 toki dago. Udalekuok uztailean 2tik 13ra eta 16tik 27ra egingo dituzte Gobela, Geroa eta San Inazio ikastetxeetan.

Musika udalekuak, barriz, 4 eta 12 urte arteko umei zuzenduta daude eta



Surf ikastaroa egingo dute Barinatxe hondartzan, Kirol Campusen barruan

Areetako Andres Isasi Musika Eskolan egingo dituzte uztailean 2tik 13ra; 100 umerentzako lekua dago.

Udako ikastaroek dagokienez, Getxon erroldatutako hainbat ikaslek parte hartu ahaliko du: Lehen Hezkuntzako 6. maila-

## Udako ikastaroetarako, adibidez, Herriarrak Artatzeko Bulegoetan eman behar da izena

koek eta DBHko lehen ziklokoek. Fadurako erretegia izandakoan egingo dituzte eta asmoa da eskolan laguntzea eta kirola egitea. Uztailean 100 plaza eskainiko dituzte, eta abuztuan 60. Izena eman daiteke ekainaren 25etik uztailean 6ra, Herriarrak Artatzeko Bulegoetan; matrikularen prezioa 29,30 euro da.

Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen Bapiruke udalekueetan, barriz, 5 eta 12 urte bitarteko 330 umerentzako lekua dago eta hiru txanda antolatu dituzte: ekainaren 25etik 29ra, uztailean 2tik 13ra, eta uztailean 16tik 27ra.

Fadurako Txikigunea, bestalde, 3 eta 12 urte bitarteko umei zuzenduta dago eta 40 toki egongo da. Ekainaren 25etik irailaren 9ra zabalduko dute eta prezioak 30 eta 170 euro artekoak dira. Azkenik, Kirol Campusak antolatu dituzte kirol taldeek, Getxo Kirolak elkartearen laguntzagaz: 500 umeek parte hartuko du. Fadura eta Gobela kiroldegietan eta Barinatxe hondartzan egingo dituzte ekainaren azken astetik irailaren lehen astera. Prezioak kirol bakoitzaren arabera finkatuko dituzte. Animatuko zara? ○

## Euskara Plana osatuz

Oraindino badago aukera ekarpenak egiteko



Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

**Maiatz hasieran** aurkeztu zuen Udalak Euskara Biziberritzeko Getxoko III. Plan Nagusiaren proposamena. Ordutik, Euskara Zerbitzukoak arloz arlo aurkezten ari zaizkie dokumentua herriko eragileei, ekarpenak egin diezazkieten. Izan ere, “dokumentu irekia” da eta, “proposamen eta inadokizunakaz, eguneratu eta etengabe egokitzen joango da finkatutako helburuei begira: euskararen transmisioa bermatu, erabilera ziurtatu eta hizkuntza beraren elikadura bideratu”.

Era berean, helburu horien baitan daude azpiatalak. Transmisioaren alorrean, esaterako, sartzen dira familia barruko transmisioa, euskalduntzea-prestakuntza, irakaskuntza eta kulturartekotasuna. Erabilerearen alorrean, barriz, sartu dituzte administrazioa, lan-mundua, aisia eta

kirola. Eta hizkuntza elikaduraren alorrean, azkenik, kokatu dituzte kulturgintza, komunikabideak eta teknologia barriak. Alorrez alor proposatu dituzte neurriak koordinazirako, sentsibilizaziorako eta komunikaziorako.

Planak arreta berezia eskainiko dio erabilerari, izan ere, alde handia dago Getxo euskararen ezagutzaren eta erabileraren artean, Euskara Zerbitzuaren azken azterketaren arabera.

Dokumentuak ikusi eta ekarpenak egiteko Udaleko webgunera jo dezakezu, euskararen atalera. Bertan ipini dituzte proposamena eta hari buruzko informazio eta dokumentazioa herritarren eskura: [www.getxo.net](http://www.getxo.net). Eta zalantzarik izanez gero Euskara Zerbitzura jo: 944 660 010 edo [euskara.zerbitzua@getxo.net](mailto:euskara.zerbitzua@getxo.net). ○

## ITSASONTZI KLASIKOAK EKAINAREN 10EAN

Usadiozko Txalupa Topaketa izango da ekainaren 10ean Algortako portu zaharrean eta benetako egurrezko itsasontzi klasikoak erakutsiko dituzte itsasoan: batzuek bela daukate eta besteek arraunak. Laugarrenez egingo dute topaketa, bertako itsas-kultura berreskuratzeko eta haregaz gozatzeko asmoz egin ohi du eta egun osorako prestatu ditu ekimenak, besteak beste: *Txispas* txaluparen jaitziera, ontziak uretaratzea, hamaiketako, argazki zahar erakusketa eta sardina-jana. Egitarau osoaren barri daukazu interneteko facebook gunean, elkartearen helbidean.

## ELIANE ELIAS ETA WAYNE SHORTER JAZZALDIAN

Uztailaren 4tik 8ra izango da 36. Getxoko Nazioarteko Jazzaldia, baina daborduko emon dute egitarauaren aurrerapena. Wayne Shorter saxo-jotzailea eta Eliane Elias piano-jotzaile eta abeslaria izango dira aurtengo izarrak. Gainera, saio nagusietan arituko dira Larry Carlton, Mike Stern, Richard Bona Band eta China Moses abeslaria. Taldeen lehiaketan, barriz, Miroslav Hloubal Quartet (Txekiar Errepublika), Piotr Pawlak Jazztet (Austria), Tobias Meinhart Quintet (Alemania) eta Szwec & Wendt Quintet (Polonia) lehiatuko dira. Sarrerak eros daitezke BBK-ren orotarako kutxazainetan, [www.bbk.es](http://www.bbk.es) gunean, 944 310 310 telefono bidez eta Algortako Kultur Etxean.

## GATAZKAK KONPONTZEA GETXON BIZI-REN BAITAN

Bizilekua Getxon finkatu barri duten atzeritarrei zuzendutako udal harrera programa da Getxon Bizi eta hainbat gai lantzen dute otsaila eta urria artean, tailer bidez. Ekainean komunikazio eraginkorra eta gatazkak konpontzea landuko dute. Hilaren 10, 17 eta 24an izango da Algortako Gaztelekuan, 10:00etatik 14:00etara; daborduko izena emon daiteke Immigrazio Bulegoan.

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net) eta 944 660 151

**naturlan**

**Lorezaintza zerbitzu orokorrak**

Tf. 656 754 243

Asociación de Amigos Algorteros "Amumak"

Asteazken poetikoak  
Itsas Fundazioa  
Euskara eta Algortako izenak  
Alzheimer, 3. Adina, Boluntarioak

<http://www.algorta.org>  
<http://amumak.getxo.net>  
e-mail: [sotaventaster@gmail.com](mailto:sotaventaster@gmail.com)  
Móvil: 656773080

**Garaizar**  
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • [regaraizar@euskalnet.net](mailto:regaraizar@euskalnet.net)  
Illeta kalea 1 • ALGORTA

**Eva Mallol** > dantza-irakaslea

“Dantzatzeko gogoa duenarentzat da dantza tailerra: ez dut gustuko dantza elitista”



Eguenero egiten dute dantza ikastaroa San Nikolas ikastolan

**Algortan irakasten du dantza Eva Mallolek, euskaraz, Egizu elkartearen ekimenez. Madrildarra bada ere urte asko daroa Ondarrun. Horrenbestez, Madrilen hasi zen dantzan klasikoa egiten, antza, txikitan hori baita ohikoena. Gerora Granadan, Bartzelonan eta handik hona ibili da ikastaroak egiten. Dioenez, ez du mugatzen bere burua eta hainbat diziplinatan ari da: klasikoa, modernoa, garaikidea, ekialdeko dantza edota flamenkoa. Azken hori beti tartekatatu du beste estiloakaz. Borroka-arteak ere oso gustuko ditu eta guztiak nahasten ditu.**

—Dantza irakasten ari zara Algortan euskaraz, nolatan?

—Dantza tailerra da, dantzaren bidez gure gorputza hobeto ezagutzeko eta beragaz harreman sanoa izateko; alde emozionala eta mugimendua lantzen ditugu. Euskaraz nahiko solte nabil, baina euskaldun barria naiz eta nire hizkerak berezitasunak dauzka: batzuetan erdarakadak sartzen ditut. Halere, ohituta nago euskaraz irakastera, umeak bainabil gehienetan, ikastetxeetan. Euskaraz beti. Bestalde, Algortako ikastarorako aukera

sortu zitzaidan Egizuren bitartez: eurek proposatu zidaten tailerra ematea. Nik ematea gura zuten, hainbat estilo nahastu ditudalako.

—Zeintzuk dira?

—Beroketak egiten ditugu flamenkoaren bidez, horren ostean Bوليوود estiloa sartzen dut, baita garaikidea ere. Iturri askotatik edan dut han-hemen, eta nire nahasketa egin dut. Ezin da sailkatu estilo bakarraren barruan. Txikitan balleta egin nuen, gero flamenkoa. Denboragaz honetan zentratu naiz, gorputzaren kon-

tzientziaren lanketan. Geure gorputzaren gaineko errespetua lortzea da gakoa.

—Euskaraz ikastaro gitxi eskaintzen dute gurean, baina eskaerarik badago?

—Nik uste ikasle gehiago dagoela irakasleak baino, badagoela eskaera. Ez dakit eus-

**«Gorputzaren gaineko errespetua lortzea da tailerraren gakoa»**

karagatik ala dantza beragatik, baina gure tailerrak arrakasta handia izan du. Beteta dago eta oso pozik gaude. Talde oso orekatua osatu dugu, gainera, bai adinari dago-kionez, bai gustuko estiloei dagokienez. Martxoan hasi eta ekainean amaituko dugu. Ez dakit datorren ikasturtean jarraituko dugun, baina seguruenek ikasleek gustuko lukete.

—Zelakoak dira zure ikasle horiek, hasi-barriak dira?

—Guztiak dira neskak, gizonak ez dira ausartu. Gehienak ikasleak dira, eta adinez, 25etik 40ra edo. Talde polita osatzen dute. Ondo pasatzeko gogoa daukate beti. Bestalde, tailerra planteatzen dut dantzatzeko gogoa daukanarentzat, ez dut gustuko dantza elitista: Arriagara ez gara joango, baina oso ondo pasatzen dugu.

—Desberdintasunik dago euskaraz edo gazteleraz irakastearen artean?

—Bai, baina batez ere neuretzat: euskaldun barria izanda, gaitzagoa da adieraztea, ez dudalako erabat menperatzen hizkuntza. Baina, era berean, gorputz adierazpen handiagoa erabiltzen dut ikasleek hobeto ulertzeko azaltzen dudana. Halere, normalean Lea-Artibain mugitzen naiz eta han denek egiten dute euskaraz, horrenbestez, normalean euskaraz irakasten dut. Hemen diferentia litzatekeena da gazteleraz irakastea. ○

## Ttakun-ttan-ttakun

**Txalaparta Jaia** aurreratu dute, eta **aurten, ekainaren 16an** izango da, **Algortan**



'Txalamobil herriz herri' bideoa aurkeztuko dute jai barruan

**Aurreratu dute** Txalaparta Jaia eta ekainaren 16an egingo dute aurten, irailan beharrean, eta ohiko legez, Algortan. UKTEST Uribe Kostako Txalaparta Ekimenetarako Sustapen Taldeak antolatzen du eta pare bat barritasun dakar 9. edizio honek.

Barritasunetako bat da meditazio tailerra, jaia hasi baino lehen: meditazioa egingo dute, txalapartaren doinuek lagunduta. Horren ostean hasiko da jaia, 12:30ean, Geltokia plazan. Egun osoan egingo dituzte tailerrak eta ikastaroak. Goizez, umeentzako eta hasibarrientzako txalaparta-tailerra izango da, eta jotzen

dakitenek, horretarako aukera ere izango dute.

Herri-bazkaria egingo dute 15:00ak aldera (eguraldi ona eginez gero plazan, baina euria egingo balu, Zabala eskolan). Txartela egunean bertan erosi ahal da 10 euroren truke. Bazkalostean kantusaioa izango da, liseriketa lasai egin ahal izateko. Arrastian, barriz, perkusio-tailerra eta txalaparta-ikuskizuna egingo dituzte. Baina barritasuna 20:00etan iritsiko da, Sustrai tabernan: *Txalamobil herriz herri* bideoa aurkeztuko du Komando Trinik. Gainera, txalaparta bat zozketatuko dute: jo zan/k barriro! ○

## GETXOPHOTO-K UMEEI EGINGO DIE GORAZARRE

Aurten umeak gorai patuko ditu GETXOPHOTO argazki-jaialdiak, eta, betiko legez, irailan izango da. Azken hiru urteotan bezala, Frank Kalero ibili da aurten ere erakusketen komisario, baina azken edizioa izango da berarentzat. Horrela, umezaroari buruz, bizitzako sasoi idealizatu eta gaitz horri buruz, begirada berezia eskainiko du. Kalerok dioenez, “*naturak ez du haurtzaroa aintzakotzat hartzen, gizaki modernoak, ordea, bai*”. Iraila osoan ospatzen dute argazki-jaialdi hau eta aurten seigarren edizioa izango da. Kalendarirako irudi erraldoiak ikusteaz gain, ikastaroak eta bestelako ekintzak antolatuko ohi ditu GETXOPHOTO urtero.

Info+: [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

## KORPUS JAIA PORTU ZAHARREAN, 24AN

Gorputzi Eguneko jaia egingo dute Algortako Portu Zaharrean ekainaren 24an, urtero legez. Egun bakarreko jaia bada ere, badago zer egin egun horretan. Aurten domekan ospatuko da eta, hasteko, meza izango da 12:00etan. Horren ostean, sardina-jana egingo dute, 13:00ak aldera, Biotz Alai abesbatzak kantatzen duen bitartean. Amaitzeko, kontzertua eskainiko du Los Txikis taldeak. Ondo pasa!

## GETXOTAR DANTZA ETA ABESBATZEN EGUNAK

Ikasturte akabuan aukera egongo da herriko dantzarien eta abeslarien lanagaz gozatzeko, beste behin ere: batetik, Getxotar Dantza Egunean, ekainaren 15etik 17ra, eta bestetik, Getxotar Abesbatzen Egunean, ekainaren 17an. Dantzariak dagokienez, herriko ikastetxeetako nahiz dantza-eskoleetako ikasleak batuko dira eta hainbat estilotako koreografiak erakutsiko dituzte hiru egunetan. Abesbatzei dagoekienez, barriz, hainbat kantu abestuko dituzte 18:00etatik aurrera. Guztiak ariko dira Algortako Biotz Alai plazan eta sarrera doakoa izango da.

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

**lagusana**  
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59  
(Tellagorri plaza)  
48991 ALGORTA  
Tf. 94 491 14 12  
[gusanalibreria@gmail.com](mailto:gusanalibreria@gmail.com)



**Akelarrea** > San Juan gauan txosnetan egiten dute

“Zapatuan izango da akelarrea eta baserritar jantzi-ta etortzeko dei egiten diegu ikusleei”

**Udako gaurik laburrena iristear da eta hasi dira hurbiltzen Leioara sorginak, aztiak eta lamiak: sanjuanetako akelarrea prestatzen hasi dira. Aurten zenbaki magikoa dauka, 13. akelarrea izango da eta. Gainera, zapatuan egingo dute eta inoiz baino jende gehiagok parte hartuko du. Animatuko zara?**

—Noiz eta zelan hasi zineten akelarrea egiten Leioan?

—Lehenengoz egin zen 1998an Mendibile Gaztetxean, Gazte Asanbladak eta AEK-k antolatuta, antzinako ohiturak berreskuratzeko asmoz. Bi urtez egin zen han eta hirugarrenean Plaza Gorrian, hirurak neguan. Hurrengo urtean hasi ginen Txosna Gunean egiten, eta San Juan gauetz. Egun gune horretako ekimen nagusia bihurtu da. Urteetik urtera sartzen ditugu barritasunak.

—Zergatik eta zertarako egiten duzue?

—Euskal kulturagaz bat egin eta antzinako ohiturak berreskuratzeko hasi zen akelarrea, bertako esaerak eta errituak txertatuz. Ohitura zaharrak mantendu eta zabaltzeko behar dira, eta jendeak parte hartu behar du horretan.

—Aurten zapatua: jendetza joango da?



Zapatuan izango da aurten akelarrea

—Erronka handia da. Hasieran ikusle gitxi geneukan, baina, apurka, jende asko etortzen da espreski akelarrera.

—Askok aldatu da?

—Beti gabiltza hobetu guran. Hasieran, grabatuta zegoen musika eta, orain, erromeria jotzera datorren taldeak jotzen du musika zuzenean. Gidoia moldatuz joan gara eta pertsonaiak gehitu ditugu. Adibidez, Marik berba egiten du, galtzagorriek okerrak egiten dituzte eta hanka-

paluek sua pizten dute. Dantzak ere asko aldatu dira eta saiatzen gara izan daitezen ezagunak eta dantzagarriak. Bestalde, inkisizioak garrantzi handia dauka: lehen akelarrea zapuztu eta horrela amaitzen zen; orain, inkisizioari aurre egiten dio herriak, baita garaitu eta ospatu ere. Hain parte-hartzaile bihurtu da, ezen ikusleei eskatu gura diegu baserritar jantzi-ta etortzeko; herritarrek parte hartu eta eroaten baitute akelarrea eurrera. ○

## Udal kudeaketak etxetik

Udaletx@n sistemaren bidez egin daitezke kudeaketak, **NAN, IZENPE** edo **ONAgaz**



Info+: [www.leioa.eu](http://www.leioa.eu)

**Udal kudeaketak** etxetik egin daitezke Udaletx@n izena daukan sistemaren bidez, urteko 365 egunetan eta eguneko 24 orduetan, internetez. Horretarako beharrezkoa da ziurtagiri elektronikoa: NAN elektronikoa, IZENPE ziurtagiria edo ONA txartela.

Beren-beregi, herritarrentzako karpeta da eta erabiltzeko udalaren webgunera sartu beharra dago: [www.leioa.eu](http://www.leioa.eu). Hainbat kudeaketa egin daiteke daborduko, baina apur-apurka, gehiago egin ahalko dira. Oraingoz errolda-papera eskura daiteke (bakarkakoa zein kolektiboa), ordainagiriak edo helbide fiskaleko aldaketak eska daitezke eta ordainketa-gunera zuzenean sar daiteke. Esan legez, ziurta-

giri elektronikoa behar duzu (NAN elektronikoa, ONA txartela edo IZENPE ziurtagiria), baina ez badaukazu, KzGuner (Kultur Leioan) joan zaitezke eta bertan egingo dizute.

Bestela, PIN batez ere egin ahalko dituzu kudeaketa gehienak, baina ez guztiak. PIN hori eskuratzeko udalaren webguneari bitartez egin behar duzu eskaera: Udaletx@n atalean sartu eta bertan eskatu. Jarraian, PIN hori batzeko udaletxera joan beharko duzu zure NAN txartelagaz edo, beste pertsona batek jaso beharko balu, zuk sinatutako baimena eroan beharko du, baita zure NAN kopia ere. Aurrerantzean on-line egin ahalko dituzu udal kudeaketak. ○

## San Juan jaiak

### • Ekainak 21, eguena:

- Pregoa, txupina eta koadrila jaitsiera (Udaletxea; 19:00).
- Sardina-jana (Txosnak; 22:00).
- Kontzertua: La Fuga + Last Fair Deal (Barandiaran Behekoa institutua; 22:00).
- Kontzertua: Striknina + Zea Mays (Txosnak; 23:00).

### • Ekainak 22, barikua:

- Umeentzako jarduerak eta bitsa-jai (Euskal Etxeen plaza; 12:00).
- Larrain-dantza (Errekalde plaza; 19:00).
- Leioako Euskal Kirol Zaleak (Bulebarra; 20:00).
- Caro Cabaret (Aldapa; 22:30).
- Kontzertuak: La Pulqueria + Bizardunak (Barandiaran Behekoa institutua; 23:00).
- Kontzertuak: Orreaga 778 + Aire Aire (Txosnak; 23:00).
- Suak (00:00).

### • Ekainak 23, zapatua:

- Arrantza-txapelketa (Lertutxe; 08:30).
- Umeentzako jarduerak eta bitsa-jai (Euskal Etxeen plaza; 12:00).
- Euskadiko Sokatira Txapelketa (640 Kg) (Udondo Bulebarra; 17:30).
- Akelarrearen hasiera: umeentzako jarduerak (Tigre enparantza; 18:00).
- Bilbainadak (Ikea Barri plaza; 20:00).
- Ikuskizuna: Ruralfoc (Bulebarra-Udaletxea; 22:30).
- Erromeria: Iratzar (Txosnak; 23:00).
- Akelarrea (Txosnak; 00:00).
- Suak (00:00).
- Bakarriketak (Aldapa; 00:30).

### • Ekainak 24, domeka:

- Aurreku-txapelketa (Udaletxea; 12:00).
- Musika-banda (Bulebarra; 14:00).
- Goitibera-jaitsiera (Muligans tabernatik; 12:00).
- Euskal dantzak (Bulebarretik; 18:00).
- Irrien lagunak (Txosnak; 18:00).
- Koadrila lehiaketaren sari-banaketa (Bulebarra; 21:00).

**udondo**  
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2  
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

**BIZKAIA**  
irratia

**BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan**

F.M. 102.6 Mhz

[www.bizkaiairratia.com](http://www.bizkaiairratia.com)



Aktualitatearen alde ezberdinak  
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**  
[sustapena@argia.com](mailto:sustapena@argia.com) · 943 37 15 45

## [erandio]

**Juan Aduri Mardaras** > Bizkaiko Gaurko Nagusia, koru-zuzendaria eta organista

“Musika ikastera baseritik oinez Mungiara, gero trenez Bilbora: gurasoentzako ahalegina zen”

**Gaurko Nagusia saria eman zioten Juan Aduri Mardarasi maiatzaren 25ean. Bizkaiko nagusiak omentzen ditu sari horrek. Adurik 81 urte dauzka eta bitzitza osoa daroa musika munduan. Gaur egun hiru koru zuzentzen ditu eta organoa jotzen du Astrabuduko parrokan: Larrauriko semea bada ere, Astrabuduan bizi da.**



Larrauriarra da Aduri, baina Astrabuduan bizi da 1953tik

—Gaurko Nagusia sariakaz omendu gura dituzte Bizkaiko nagusiak?

—Bai, Gaurko Nagusia fundazioak antolatzen du eta Aldundiak eta Udalek laguntzen dute. Zaharrei omenaldia egin gura diete, egindako beharra aitortzeko. 100 lagun proposatu zituzten, 12 izan gara finalista eta hiruri emon digute saria eta Ibarrolaren eskultura.

—Nork proposatu zintuen?

—Jubilatueta daukadanez korua, hori kudeatzen duenak esan zidan: auzoan gauzak antolatzen eta beharrezan urte asko zeraman pertsona gura zuen-eta. Kurrikuluma bota zuen eta handik gitxira esan zidaten finalista nintzela.

—Musika arloan ibili zara beti, baina gaur ere: hiru koru zuzentzen duzu.

—Beti. Mungian hasi nintzen solfeoa ikasten zazpi urtegar, gerraostean. Gero-

ra Bilbon hasi nintzen. Baina orduan ez zegoen egungo erraztasunik, zaila zan mugitzea. Gaur egun musika eskolak daude herri guztietan. Baseritik oinez joaten nintzen Mungiara, eta handik trenez Bilbora, astean bitan. Gurasoentzako ahalegin handia izan zen. Larraurin organista nintzen parrokan 12 urtegar, eta korua osatu genuen 15 nituela. Handik urte batzuetara, 23gar, Astrabudura etorri nintzen lana zela-eta, eta berehala hartu ninduen parrokoak bertako elizan jo-

tzeko. Handik aurrera beti izan ditut koruak: umeenak zein helduenak. Gaur egun zuzentzen ditut Abots Alai abesbatza, Astrabuduko Jubilatuen abesbatza eta Bilboko Urretxindorrek, eta organoa jotzen jarraitzen dut. Asteko egun guztiak okupata dauzkat.

—Beraz, saria pozik hartu duzu?

—Bai, sorpresa handia izan da. Bazegoen GKEakaz beharrezan egondako jendea, baina gaixoak zaintzen dituztenak ere, eta ez nuen espero. ○

## Jai-maratoia hasi da Ekainean ospatuko dituzte Erandiogoikoa, Faoeta eta Martiartu auzoetan



Akerbeltz taldeak joko du Erandiogoikoan ekainaren 9an, zapatuan

**Festarik festa lan egin behar gauero...**

Horrela zioen kantak eta Erandion asko dakite jaietz eta parrandaz: ekainean ospatuko dituzte jaiak Erandiogoikoan, Faoetan eta Martiartun. Hamaika ekimen prestatu dituzte eta ezin hemen guztiak jaso, baina bai ekitaldi nabarmen batzuk.

Jaiak ospatzen lehenak izango dira Erandiogoikoako auzokideak: Gorpuzti jaiak egingo dituzte ekainaren 3tik 10era. Besteak beste, prestatu dituzte: kirol eta sukaldaritza-txapelketak, herri-kirolak, Altxaga abesbatza, euskal dantza erakustaldia, buruhandiak, Lisker eta Akerbeltz erromeria-taldeak, herri-bazkaria, sardi-

na-jana eta nagusientzako mokadutxoa.

Faoetan, barriz, San Bernabe jaiak izango dira hilaren 8tik 11ra. Barikuan eta zapatuan berbenak izango dira, eta egunero egongo da presente sukaldaritza: tortilla-txapelketa, herri-bazkaria... Tiragoma eta briska txapelketak ere ez dira faltako.

Azkenik, Martiartun sanantonioak ospatuko dituzte ekainaren 13tik 17ra. Han ere ez da egongo tarterik aspertzeko. Ohiko ekimenez gainera, kontzertua eskainiko dute Gora herria eta Laket taldeek, eta bertsotan ibiliko dira Jon Maia, Sustrai Colina eta Sebastian Lizaso. Hartu arnas eta segi parrandan! ○

### MUSIKA ENTZUNALDIAK ASTRABUDUAN

Ikasturtea amaitzean da eta urtean ikasitakoa jendaurrean erakusteko unea iritsi da. Horregatik, musika-entzunaldiak egingo dituzte Musika Eskolako, Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxeko areto nagusian. Saioak izango dira ekainaren 20an, 21ean eta 22an, 19:30ean. Sarrera doakoa izango da.

### UDARAKO IKASTARO ESKAINTZA ZABALA GAZTE-BULEGOAN

Uztailerako ikastaroetan izena eman daiteke ekainaren 25era arte. 15 eta 35 urte bitarteko erandioztarrentzako, baina tokirik geratuz gero, herritar guztiei zabalduko diete parte hartze aukera. Hainbat tailer egingo dute, hiru arlotan banatuta: sukaldaritza, eskulanak eta txakurrak hezteko ikastaroa. Sukaldaritzaren barruan landuko dituzte ekialdeko mokaduak, frantziar sukaldaritza, *muffins* eta *cupcakes*, indiar sukaldaritza, tartak, sukaldaritza beganoa eta gominolak: Erandion erroldatuek 3 euro ordaindu beharko dute tailer bakoitza eta ez-erroldatuek 5 euro. Eskulanei dagokienez, irakatsiko dute apaintzen alfonbrak, nezeserrak, betaurrekoak gordetzeko kutxatilik, kuxinak, esekitokiak, zapiak gordetzeko kutxatilik, argazkientzako markoak, poltsak, erlojuak... Erroldatuek 2 euro ordainduko dute tailer bakoitza eta ez-erroldatuek 4 euro. Txakurrak hezteko ikastaroa, barriz, luzeagoa izango da (uztail osoa iraungo du) eta zuzenduta egongo da arazoak sortzen ez dituzten sei hilabetetik gorako txakurrei. Klase batzuetara txakurrak joan beharko du ikasleak, besteetan txakur barik. Kasu honetan, erroldatuek 30 euro ordaindu beharko dute eta ez-erroldatuek 50 euro. Izena eman behar da Gazte-Bulegoan (Irailaren 23a plaza), baina telefonoz edo internetez ere egin daiteke. Egizu lehenbailehen!

Info+: 946 025 291  
eta gazteinfo@erandioko-udala.net



www.ukaldizkaria.biz

**EGUNKARIAK**  
prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,  
etxera eroango dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78  
Tf. 94 491 27 34

## 'SKATE EGUNA' OSPATUKO DUTE EKAINAREN 16AN

Skate zaleak euren egun handia ospatuko dute ekainaren 16an Zipiriñe eskolako patioan. 11:30ean hasibarrientzako skate-tailerra eta break-dance eta graffiti tailerrak antolatu dituzte. Arrastian, barriz, skate-erakusketa eta txapelketa izango da, 16:00etatik aurrera, eta 21:00etan dantza moderno ikuskizuna egongo da.

## UDAL EUSKALTEGIAN IZEN-EMOTEA ZABALIK

Hurrengo ikasturtean euskara eskolak jaso gura dituzu Sopelan? Bada, udal euskaltegi-ko izen-emotea zabalik duzu daborduko, ekainaren 28ra arte. Horretaz gain, irailean euskara mailak egiaztatzeko ikastaro trinkoak antolatu dituzte; irailaren 3tik 27ra bitartean. Ordutegia honakoa izango da: 09:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Matrikula epea ekainaren 28an amaituko da.

## AUZOLANAREN KULTURA LIBURUAREN AURKEZPENA

Plaza Beltza Kulturaguneak liburu-aurrezpenak jarraituko du ekainean. Hilaren 8an, *Auzolanaren Kultura* liburuaren aurkezpena antolatu dute, 19:00etan. Liburuaren idazleak solasaldia egiteaz gain, auzolanaren inguruan hausnarketa egiteko baliatuko dute berbaldua.

## 120 LAGUN BATU DIRA AUZO-BILERETAN

Udal aurrekontuak azaltzeko auzo-bilerak antolatu zituen Sopelako Udalak maiatzaren erdialdean (herrigunean, Larrabasterran, Arriateran eta Sopelmarren). Guztira, 120 auzokide baino gehiagok parte hartu zuen asanbladetan, eta euren zalantzak argitzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan zuten. Udalaren arabera, aurrekontuetara mugatuko, zeharka landuko dute.

## Euskarak batzen gaitu!

Ekainaren 15ean ospatuko da **V. Kantaldia, Aitxu! euskara elkarteak** antolatuta



Herriko elkarte eta auzokide ugari batzen ditu kantaldiak

**Kantak** eta euskara batzen dituen jaia antolatu du Aitxu! euskara elkarteak ekainaren 15ean: kantaldia V. edizioa ospatuko da aurten, eta aurreko urteetan legez, jaitxoak zati bi izango ditu. 19:00etan kale-kantuketa egingo dute tabernaz taberna, Taberna Ibiltariaren lagunak batera. Laiak tabernatik abiatuko dira.

21:30ean, barriz, bigarren zatiari hasiera emongo diote, Urko kiroldegian. Bertan, herriko eragile, kirolari tabernari eta auzokideak batera afaria egingo dute, liburuxken laguntzaz kan-

tatzen duten bitartean. Menu ederra prestatu dute gainera: porru eta perretxiko pastel epela, saiheskia patataz, oilasko errea, entsalada eta hostorezko etxeko tarta eta izozkia. Afaltzeko tike-tak ekainaren 1etik aurrera egongo dira salgai, 20 eurotan, Yakon, Laiak-en eta Alemaniaren tabernan.

Sopelan euskararen normalizazioa eta erabilera bultzatzea da kantaldiaren helburu nagusia. Izan ere, *'Euskarak batzen gaitu'* lelopean, herriko elkarte eta eragileak batuko dituzte euskararen eta kanten inguruan. ○

**Aurelio Garcia eta Bittor Crespo** > Lagun Artea elkarte

“Gure artean dugun giro ederra da Lagun Artea elkartearen ezaugarri nagusia”



Besteak beste, Agate Deuna kantatzera urtetan dira Lagun Arteakoak

**25 urte** bete barri ditu Lagun Artea elkarte sopoloztarrak. Urte hauetan guztietan hamaika ekimen antolatu dituzte: urteerak, tailerrak, dantzaldiak... Laster, gainera, elkartearen logotipoa hautatzeko txapelketa antolatuko dute.

—**Zorionak! Ospakizun berezirik antolatu duzue urtemuga ospatzeko?**

—Bai, ekainaren 15ean, barikua, jaitxo egingo dugu Nagusien Etxean 17:30etik aurrera. Bertan, lehenik eta behin, elkarte batzordean egon diren lagunei omenaldia egingo diegu. beste herrietako nagusien elkarteak etorriko dira, eta askaria eta dantzaldiak izango ditugu. Sopelako nagusi guztiak animatu gura ditugu egun horretan Nagusien Etxera etortzera.

—**Zenbat bazkide batzen zarete egun?**  
—580 bat bazkide izango gara guztira. Izan ere, hainbat jardura antolatzen ditugu eta jende askok parte hartzen du: hiru igeriketa talde ditugu, gimnasia talde bi, dantza talde bi e.a. Horretaz

gain, abesbatza ere badugu; 35 lagunek parte hartzen du bertan, baina zalantza barik, gure arteko giro ederra da taldearen ezaugarri nagusia!

—**Ikastaroak ez ezik, urteerak ere antolatzen dituzue...**

—Bai, urtean behin astebeteko bidai egiten dugu (aurten Benidormera joan gara). Horretaz gain, urtean lautan egun-pasako urteerak egiten ditugu. Bestalde, hainbat berbaldi antolatzen ditugu: medikuntza arlokoak, Guggenheimeko

**«60 lagun elkartzen gara zapaturu Nagusien Etxean bingoan aritzeko»**

arkitektura eta arte garaikidearen ingurukoak e.a. Gainera, zapaturu 60 lagun elkartzen gara Nagusien Etxean bingoan aritzeko, eta karta-joko txapelketak antolatzen ditugu.

—**Aurrera begira zer egingo duzue?**

—Urriaren gure elkartearen logotipoa egiteko lehiaketa jarriko dugu martxan. ○



www.ukaldizkaria.biz

DIDAK  
**hamilton**  
IDIOMAS

**Ingelesa, Frantsesa eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
  - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
  - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.  
Tf. 94 676 30 12  
info@didakhamilton.com

**ANDER DEVNA**  
**IKASTOLA**

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA  
Tf. 94 676 02 66  
Email.: sopela@ikastola.net

**OINUTSIK**  
KONTSULTA PODOLOGIKOA  
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4  
48600 Sopelana  
Tf. 94 404 74 20  
CITA PREVIA  
podologiaoinutsik@gmail.com



**OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

## ARDO EGUNA EKAINAREN 10EAN IZANGO DA

Aurreko UKn argitaratu genuen legez, ekainaren bigarren asteburuan ospatuko da XII. Ardao Eguna. Bada, ekainaren 9an ospatuko zela kaleratu genuen arren, hurrengo egunean, ekainaren 10ean (domeka) izango da. Lau euroren truke, gura beste txakolin edateko aukera egongo da, 22 txakolingile berangoztaerek egindako lanari esker. Ederto pasa, eta barkatu okerra!

## 'DIDI JAZZ' KONTZERTU DIDAKTIKOA ANTZOKIAN

Ekainaren 9an 'Didi Jazz' kontzertu didaktikoa helduko da Santa Ana auzoko Berango Antzokira. 19:00etatik aurrera jazz musikaren inguruko nondik norakoak ikasteko aukera izango dugu. Ikuskizuneko osagai nagusia, gainera, umorea da. Sarrerak hiru eurotan egongo dira salgai, eta alde zurreratik eros daitezke. Horretaz gain, ekainaren 15ean Beethoven eta Berlineko Filarmonika izango dute aztergai Berangoetan, ostiral musikalen baitan.

## GAZTEGUNA ZABALDU DUTE KARABIAZPIN

Berango Udalak 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat lokala zabaldu du Karabiazpin auzoan, Behargintzaren alboan. Oraindik ez da zehaztu zein izango den lokalaren erabilera, baina besteak beste, lokala atondu eta sukaldea eta telebista jarri dute. Inaugurazioa maiatzaren 18an egin zuten.

# Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B  
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 NEGURI 48990 GETXO

## Burdin Hesia ezagutuz Berangoeta Kultur Etxean Interpretazio Gunea zabalduko du Berangoko Udalak



Erakusketa iraunkorra egongo da Berangoetan

**75 urte** joan dira gerra zibilean Burdin Hesia eraiki zenetik, eta urtemuga hori aprobetxatuz, gerra zibileko aztarnei lotutako Interpretazio Gunea zabalduko duela jakinarazi du Berangoko Udalak. Ekimen berri hau Berangoeta Kultur Etxeko erakusketa aretoan jarriko dute, eta erakusketak, barriz, Berango Antzokian izango dira aurrerantzean.

Interpretazio Gune horretan, garai hartako hainbat objektu egongo da ikusgai: mapak, egunkariak, arropak, eskutitzak, txanponak, banderak, argaz-

kiak e.a. Bisitariari informazio gehiago eskaintzeko asmoz, hainbat panel jarriko dira, Sancho de Beurko elkartearen eskutik. Hain zuzen ere, elkarre honetaz gerra zibileko aztarnak zaintzeko eskaera egin zion Berangoko Udalarari. Gainera, bestelako ekimenak ere antolatuko dituztela iragarri dute: hitzaldiak, eztabaidak, pelikulak e.a.

Bestalde, Jataondo enpresagaz batera, Burdin Hesiko aztarnak eta Munarrikolandako trikuharriak ezagutzera emateko asmoz, trekking bidea zabalduko duela jakinarazi du Udalak. ◊

**Adrian Salado** > Txori-lagun elkarteeko presidentea

“Txorien kantuen garbitasunak garrantzia dauka lehiaketetan”



Txori-lagun elkartearen bazkide ugariak parte hartzen du

**Maiatzaren 1ean** Gorliz txori kantarien XXX. lehiaketa ospatu zuten; bertara, txorien kantuagaz maiteminduta dauden zaletuak hurreratu ziren. Ekitaldiaren antolatzaile Txori Lagunen elkartearen presidentea egon da, horren berri eman diezagun.

—Zelako ekimenak antolatzen ditu Txori-lagun elkarteak?

—Gure elkartearen 1960 urte inguruan sortu zen. Txori kantarien lehiaketak antolatzen ditugu Euskadin, baita kanpotik deitzen badigute ere.

—Zertan datza txori kantarien zaletasuna, zer egin behar duzue?

—Udaberri amaieran, Foru Aldundiak txoriak ehizatze baimena ematen digu; betiere, kopuru mugatua daukagu. Eta horrela, ehizatzen ditugun txoriak kanta dezaten hezten ditugu. Normalean, hezteko txoriak txoka eta karnaba-

motakoak izaten dira; txori guztiek ez baitute kantatzeko balio. Eta horretan ibiltzen gara, hilabetez eurak hezten. —Zaletasunik badago gurean? —Bai, zale ugari dago Euskadin, normalean 10-12 lehiaketa egiten ditugu

**«Txokei eta karnabei kantuen irakasten diegu; hilabetez hezten ditugu»**

udaberri aldean; berbarako, Gorliz 100 lagun inguruk parte hartu zuten.

—Zer baloratzen da lehiaketetan?

—Lehenengo eta behin, txoriaren kantuen garbitasuna kontuan hartzen dugu; ez ditzala txolarreen doinuak eta kanta abestu. Izan ere, txoriek, oro har, oso erraz hartzen dituzte besteen kantuen garbitasuna kontuan hartzen dituzte beste kantuen garbitasuna garrantzitsua da. Horrez gain, kantua bera ere garrantzitsu da, eta hori ere kontuan hartzen du epaimahiak. ◊

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96



Torre 2  
48990 ALGORTA  
94 491 12 71  
iratialgorta@gmail.com

*irati*  
OPARIAK MODA GAZTEA

COMERCIAL  
de LIMPIEZA  
**VILLAR S.A.**

**Harrizko moduko kalitatea!**

- Garbiketa orokorra
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarrria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)  
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com

**Zure publizitatea hemen**

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37

publiuk@aldizkaria.biz

## AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
- ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

## GORLIZKO ANDRA MARI URBANIZATZEKO LANAK BERTAN BEHERA

Gorlizko Andra Mari auzoa urbanizatzeko obrak bertan behera utzi zituzten orain dela aste batzuk; horrez gain, urbanizatzeko obrak aurrera daramatzen enpresak erabaki barri du auzorako sarbidea galaraztea. Izan ere, enpresaren aburuz, segurtasuna ziurtatzeko beharrezkoa izan da horrelako neurria hartzea. Horrez gain, obrak barriro martxan jarri arte sarbidea ixteko asmoa erakutsi du enpresak berak. Bitartean, udal-gobernua beste alderdiak adostasunera heltzen saiatzen ari da, obrek aurrera jarri dezaten. Aurreko apirilaren 12an bertan behera utzi behar izan ziren obrak, talde independentea horren aurka agertu ostean. Halere, obrak ia amaitzeaz daude.

## GORLIZ-PLENTZIAKO EUSKARA TALDEKO AURKEZPEN EGUNA

Aurreko ale batean kontatu genizun bezala, Plentzian eta Gorliz euskara taldea jaiotzen da. Jaiotza horren berri emateko taldeko kideak aurkezpen eguna antolatzen ari dira ekainaren 23rako. Zenbait gauza erabakita dituzte: triki-kalejira, herri-bazkaria eta karaokea antolatuko dituztela, berbarako. Badira, oraindino zehazteko daudenak, eta hori guztia prestatu, eta aurrerako ekinbidea zehazteko hurrengo bilera ekainaren 7an, arrastiko 19:00etan Goñi Portalen izango dute bertako euskatzaleek.

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

## Plentzia

Emakumeek euren eskubideez kalean galdetzeko aukera datozen **bariku bietan**



Lan-lege barrien inguruan galdetzeko aukera izango dute emakumeek

**Kalean bertan** emakumeek aukera izango dute euren eskubideen inguruan lasai asko galde egiteko; izan ere, ekainaren 8an eta 15ean 17:30etik 19:30era Plentziako kaleetan abokatu bi egongo dira emakumeen zalantzak argitu ahal izateko. Ekimenaren helburu nagusia: edozein emakumek lan-eskubideen inguruan galde dezan, eta eduki ditzakeen zalantzak argitzea. Plentziako Udalak martxan jarri du honako dinamika emakumeen aurkako bortizkeria hainbat bideratik amaitzeko asmoz, era berean, emakume zein gizonezkoen arteko berdintasuna erdieste bidean lagungarri izan nahi du honakoak.

Oro har, emakumeek euren lan eskubideak ez ezagutzeak sortzen duen ezjakintasunak nabarmen eragin ei du emakumearen jabekuntza eta autonomia mailan. Udalak berak emandako zenbait daturen arabera, emakumeen %85ek ez ditu lan-eskubideak ezagutzen; hortaz,

ez dira gai lan-diskriminazioari aurre egiteko. Udalak abiatu barri duen ekimenak hainbat onura ekarriko dio Plentziako herritarrei oro har, eta emakumeei zehazki; horrenbestez, herritarren arteko sentsibilizazioa lortzea espero dute ekinbidearen sustatzaileek. Gainera, emaku-

## Legeen ezjakintasunak emakumearen jabekuntzan eta autonomian nabarmen eragiten du

meei, kasu honetan, euren eskubideak defendatzeko tresnak emango dizkiete. Eta bide horretan, lan, pertsonal zein eginkizun familiarren kontziliazioa lortzeko akuilu izan nahi du ekimen horrek. Hortaz, emakume eta langilea izanez gero, hortxe izango duzu aukera lan-eremuan dituzun eskubideen inguruan galde egin eta zalantzak baztertzeko; ez ahaztu, ekainaren 8an eta 15ean Plentziako kaleetan. ○

# Eka. 5 - Eka. 18

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tf. 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### GORLIZ

► **Pintura ikastaroko lanak.** Ekainaren 8tik 10era. Erakusketa-aretoa.

► **Patchwork ikastaroko lanak.** Ekainaren 15etik 17ra. Erakusketa-aretoa.

### GETXO

► **So egitea: Tania Quindos eta Oihana Goenaga.** Ekainaren 30 arte. Algortako Torrene aretoa.

► **Arteskola.** Ekainaren 11tik 23ra. Algortako Kultur Etxeko erakustaretoa.

### PLENTZIA

► **Joskintza tailerrak.** Ekainaren 15 arte. Goñi Portalen.

## MUSIKA

### BERANGO

► **Didi jazz. Kontzertu didaktikoa.** Ekainak 9, 19:00etan. Berango Antzokian.

### LEIOA

► **San Juan kontzertua.** Ekainak 14, 20:00etan. Kultur Leioan. 3 euro.

► **Jota txapelketa.** Ekainak 17, 12:30ean. Errekalde plazan.

### SOPELA

► **Aitxu euskara taldearen kantaldia.** Ekainak 15, 19:30ean. Urko kiroldegian.

### GORLIZ

► **Disko-festa.** Ekainak 17, 18:00etan. Batzokian.

### ERANDIO

► **Entzunaldiak.** Ekainak 20, 21 eta 22, 19:30ean. Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean.



Julio Sotok eta Angel Peñagarikanok kantatuko dute

### ► Bertsolaritza

## Balkoitik balkoira ekainaren 22an, barikuan

Udan sartzeagaz batera iristen da urteko bertso-saiorik berezienetakoa: Balkoitik balkoira. Algortako portu zaharrean egiten dute eta bi bertsolari ibiltzen dira nor baino nor, Etxetxu plazako bi bazterretako balkoi banatetik. Aurrez aurre abestuko dute, antzina Euskal Herrian egiten zen bezala. Algortako Bertsolari Eskolak eta Getxoko Euskara Zerbitzuak antolatu dute. Orain 13 urte egin zuten saioa lehenengoz, 1999an. Urte hartan Egañak eta Lizasok kantatu zuten. Orduetik hamaika bertsolari igaro da balkoi horietatik eta, aurten, Julio Soto eta Angel Peñagarikanoren txanda izango da. Ekainaren 22an kantatuko dute bat-batean, gaueko 22:00etan.

• **Non:** Algortako portu zaharrean • **Noiz:** Ekainaren 22an, 22:00etan

## ANTZERKIA

### GETXO

► **Kontularien kluba.** ekainak 8, 19:00etan. Algortako Villamonte Kultur Etxean.

► **Despreocupadas.** Ekainak 9, 19:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 3 euro.

► **Menu de crisis.** Ekainak 17, 19:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 3 euro.

### SOPELA

► **Ay Carmela.** Ekainak 9, 20:00etan. Kurtzio Kultur Etxean. 6 euro.

► **Kiki eta Koko pailazoak.** Ekainak 10, 18:00etan. Kurtzion. 3 euro.

### LEIOA

► **Andoni Aresti Dantza Eskolaren gala.** Ekainak 16, 19:30ean. Kultur Leioan. 6 euro.

► **CDART III. Dantza gala.** Ekainak 17, 19:30ean. 6 euro.

### PLENTZIA

► **Trapu Zaharra.** Ekainak 15, 19:00etan. Astillero plazan.

### GORLIZ

► **Ipuin-kontalaria.** Ekainak 16, 18:30ean. Sertutxenan.

## ZINEMA

### SOPELA

► **Una verdad incomoda.** Ekainak 8, 20:00etan. Kurtzio Kultur Etxean.

► **Tintin, el secreto del unicornio.** Ekainak 17, 18:00etan. Kurtzion. Doan.

### BERANGO

► **Malutatxo.** Ekainak 10, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

## BESTEAK

### GORLIZ

► **Ikasturte amaierako jaiak.** Ekainak 8, 16:00etatik 20:00etara. Ikastetxean.

► **Umeen Eguna.** Ekainak 16, egun osoan. Ibarreta plazan.

► **Euskal jaiak (Euskeraz olgetan).** Ekainak 23, 12:00etatik 14:00etara. Ibarreta plazan.

### LEIOA

► **Txorierri auzoko jaiak.** Ekainaren 8tik 10era.

### SOPELA

► **Auzolanaren kultura liburuaren aurkezpena.** Ekainak 8, 19:00etan. Plaza Beltza kultur gunean.

► **Skate Eguna.** Ekainak 16, 11:30ean. Gaztelekun.

### BERANGO

► **Ardo Eguna.** Ekainak 10, goizez. Nagusien Etxearen ondoko plazan.



ADITUAK GARA PINTXO ETA  
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA



# Animalien artean

Ikasle-taldeei begirako bisita gidatuak eskaintzen ditu Sopolako Garden Centerren sortu barri den zoo txikiak. Animalia exotiko andana ezagutzeko aukera dago. Oso handia ez den esparruan, llamak kanguruen auzokide dira, Patagoniako erbiaren eta arantzurdearen bizilagun ere. Txorientzako (ibisa, hegabera, faisai e.a.) gunea ere bada. Ostera, gura ez dela ere, beste txoritxo haren kanta dakar haizeak ...*baina honela, ez zen gehiago...*

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





## Egia hotela

Algortan

Algortarrek ondo baino hobeto gogoratuko dute Egia hotel mitikoa. Kasino plazan zegoen eraikina. Hain zuzen ere, bertan kokatuta dagoen Caza Bar tabernak utzi digu argazkia. Sona handiko hotela zen Egia, ingurukoek diotenez “*munduko onenetakoa*”, eta Algortako erdigunea zen zabalik zegoen garaian: esan digutenez, 1906 eta 1966 artean. Ugarte hotela eta ostatu batzuakaz batera osatzen ei zuen Algortako hotel eskaintza. Irudi honetan agertzen diren gizonak ez dakigu bezeroak edo algortarrak diren, baina dotore-dotore jantzita daude. Bitxiena da, zuzenean kamerari begira daudela, beren buruei galdetuz zer demontre ariko ete zen argazkilaria.

Caza Bar

[berbetan]

Literaturia ekimena egin zen joan den aste akabuan Larrabetzun. Hori aitzakia hartuta ekimenaren antolatzaileetako bat den Gotzon Barandiaranengana (Larrabetzu, 1974) hurreratu gara, oro har, euskal literaturaren itsasoko zenbait traineraz berba egiteko, barbarako: idazlearen beraren lanez *-Arrakalak* (2004, Susa), *Katamalo* (2008, Susa), *Errotik* (2010, Susa)-; Literaturiaz, Ahotseneaz, *Katamalo* poema musikatuaren emanaldiez, Gernikan estreinatu zuten *Hemen gaude* ikuskizunaz e.a. Aipatutako danetako patroi antzekoa da-eta sortzaile larrabetzuarra.

# Gotzon Barandiaran

## Hartzaile, sortzaile, antolatzaile

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zelan eta noiz erabaki zenuen bizimodu literaturari lotzea?

—Bihotz Bakartien Kluba sortu genuen Larrabetzun, 2000 urtean edo; hor hasi ginen Hori Bai! Gaztetxearen inguruan genbiltzan batzuk literatura zale eta musika zale gehienak, alkarregaz lan egiten: Sarrionandiaren testuak errezitatu, musikatatu, horren inguruko emanaldia antolatu... Ordurako, nik uste, idatzi idazten nituela gauzak, niretzat, inori ezer erakutsi barik, nire estiloa, ahotsa bilatzen, gauzak pila-tzen; baina, ezer argitaratzeko asmo barik. Bihotz Bakartien Klubaren inguruan gogoetak egiten genituen, euskarazko literaturaren gainean-eta; irakurle ginen, eta irakurleak literaturan zer garrantzia daukan, zein funtzio hartzen duen, erabakirik hartzen duen ala ez, zer irakurtzen dugun, nork esaten digun zer irakurri, aukeratzeko zer daukagun e.a. gogoeta egiten hasi eta hurrengo urterako ia Literatura Eskola abiatuta genuen. Literatura Eskola sortu genuen irakurleon beharrianak-eta elikatzeke, geure burua elikatzeke. Gaur bezala, orduan ere, konturatzen ginelako lite-


raturaz genekiena ez zela nahikoa, erreferenteak hezkuntza araututik jasotakoak zirela... Ikastolan-eta ibili ginenok bage-neuzkan euskal literaturaren gaineko zenbait ezagutza; baina, inposatutako hezkuntza eredutik, Espainiako literatura baino ez genuen ikasten. Iruditzen zitzaigun hori ez zela nahikoa; konturatzen ginelako ere ez genuela literatura modu akademikoan ikasi gura, ez genuela literatura hizkuntza ikasteko tresnatzat bakarrik; literatura gogoetarako genuela, mundua

**“Literatura Eskola geure burua literaturaz, irakurtzen eta antolatzen ikasteko, gogoetarako benetako eskola da”**

ulertzeko beste modu bat legez, ahotsak eta beste batzuen munduaren interpretazioak ezagutzeko, gauzak esateko modu diferenteak eta abarrerako bitartekotzat genuela. Hasierako urteetan, Larrabetzun egiten genuen, gerora Euskal Herri osora zabaldu dugu; hor gabiltza sarea osatzen. Testuinguru horretan, Literatura Eskolaren bueltan batu ginen gaur egun idaz-

ten ari garen asko, ordurako idazle zirenak, editoreak ere, kulturgintzan zebilen jendea e.a. Sortu zen giroak gutako asko bultzatu, sakatu gintuen, “zergatik ez?!” idazten genbiltzan hori publikatzera. Gainera, neu, sasoi hartan, Susa argitaletxeko kideakaz, idazleakaz, berez Susa idazleon argitaletxea delako, harremanetan ere hasi nintzen (Armiarmaren sorrera garaia eta); literatura ulertzeko modu bat, kultura ulertzeko modu bat, euskarazko kultura ardatz hartzen ikasi nuen, kultura

eta literatura ahalik eta gehien zabal-tzen... Konpartitzeko dela, literatura ez dela bakarrik norberarentzat... Hor, literatura nire bizitzako parte oso garrantzitsu bihurtu zen, eta idazteari bere garrantzia emon nion; idazten ordu asko jardutea. Gero, baita sortzaile legez ere, nik uste, Literatura Eskolan sortu den, eta gugan erne den hazia hau da: ez garelako inoren





zain egongo; euskarazko literaturan gabeziak, hutsuneak, konpondu beharrekoak ikusten baditugu, gu geu ahaleginduko gara konpontzen.

—**Hazi emankorra landatu zenuten Literatura Eskolan, fruituak: Ahotsenea, Literatura, Katamalo e.a.**

—Bai, Eako poesia Eguna ere lehenago Literatura Eskolako gogoeta-prozesuan sortu zen; Edo, oraintsu sortu den argitaletxe barriko kideak Literatura Eskolako kide dira... Eskolan, orokorrean literaturaren inguruan, eta beren-beregi euskal literaturaren inguruan, sorkuntza handiko giroa sortu dugu. Argi dugu guk sortu behar dugula, idatzi; eta horretatik aparte antolatu ere bai. Gu gara sortzaile, antolatzailerak eta hartzaile. Ez dut esango Literatura Eskola izan denik sua piztu duena, baina bat dator Euskal Herri osoan sortu den irakurle-taldeen edo irakurle-bilguneen ugaritza. Irakurle-talde askotako kide edo bultzatzaileak, Literatura Eskolan ibilitakoak dira. Guk lortu dugu. Uste dut Literatura Eskola geure burua elikatzen ikasteko, literaturaz ikasteko, irakurtzen ikasteko, antolatzen ikasteko, gogoetarako benetako eskola dela. Neuk giro horretan, eta batez ere Susan, aurkitu dut aterpea, abaro oso epel eta goxoa, eta Susako kideengatik ez balitz, ziurrenik ni ez nintzateke idazle izango. Nik 30 urtegez publikatu nuen lehenengo liburua! Momentu horretan beste batzuek zer konpartitu banuela iruditzen zitzaidalako. Bat ez da idazle egiten ezerezetik, nik uste! Gero, hori baino lehenago badago gure etxera anaia zaharrak ekarritako liburua, musika, eta euskal kulturari buruzko edukiak... Oso gazterik, euskaraz gauzak ahozkotik era diferente batzuetan esan daitezkeela konturatzeak liluratu ninduen! Hizkuntzak, euskarak asko liluratzen nau, betidanik; adar asko ditu: jolasa, estetika, gogoeta eta horretan sentitzen naiz eroso. Bestalde, Ahotsenea, Literatura... Komunitate, kolektibo bateko kide sentitzen naiz, eta hortik sortu dira guztiak. Ez baduzu giro bat, ez baduzu

ikusten, entzuten, ez bazaude besteen gogoetei adi, ez badituzu zeure egiten eta hausnartzen... idatz dezakezu, sortuko duzu, baina... Idazten dut ahoz gauza horiek esateko gai ez naizelako; margotu, idatzi, musika jo, dantza egin, bertsoan... komunikatzeko kultur adierazpide bat aukeratzeko baliabideakaz kapaz ez zarelako da.

## “Gabeziak, beharrianak ikusiz gero, erabaki genuen inoren zain egon barik, geu ahaleginduko garela konpontzen”

—Bai Literaturiak, bai Ahotseneak, zelanbait bestelako gune barriak zabaltzeko beharrei erantzuten dio. Arrakastatsua. —Baina, oso kontuan eduki behar duzu nondik sortzen diren; hartzaileengandik, batez ere. Hartzaileok gara sortzaile eta eragile. Literatura Eskola sortu genuen legez Literatura edo Durangoko Azokan Ahotsenea, hartzaile gisa gabezia, beharrian eta betetzeko zulo batzuk ikusten genituelako egin genuen; eta erabaki genuen inoren zain egon gabe, geuk beteko genituela. Auzolan handia da hau guztia; auzolanean, abiatzeko denok maila berean eta gabezia bat egon behar du, bestela ez duzu auzolanik antolatzen. Gabezia hori askoren artean bete behar dela erabakitzen dugunean, nola bete ere erabakitzen dugu. Hori da Literatura, hori da Ahotsenea. Erantzun

## “Ahots, ikuspuntu eta gai diferentez idazten gabiltza. Gabeziatxo: urgentziatzko literatura ez gara egiten ari”

ona? Hartzailearen ikuspuntutik ere egin da dagoelako da; hartzaile, antolatzailerak eta sortzaileen hiru ikuspuntuetatik. Badakigu gure antzera pentsatzen duen jende asko dagoela; Literatura Eskolan, irakurle taldeetan eta beste hainbat antolaketa gunetan ikusten dugulako, konpartitu dugulako gabezia.

—Bai *Arrakalak*, bai *Katamalo*-gaz eta beste ere, poesia eta musika uztartzen duten emanaldiak jorratu izan dituzu...

—Literaturak adierazpide asko ditu. Niri interesatzen zait, eta uste dut gure belau-naldiko askok konpartitzen dugula, garrantzitsuena dela zeuk argi edukitzea zer den konpartitu gura duzuna; zer den adierazti gura duzuna, zein mezu... Hori argi

edukita, oso garrantzitsua deritzot, zelan egiten duzun garrantzia emoteari; zein generotan, zein formatotan... Ideia zure buruan dagoenetik eta gerora izango dena ahalik eta fidelen, zintzoen eta argien transmititzeko zein bide erabili garrantzitsua da niretzat. Idazle batek generoa aukeratzea lehenengo... Neuk ez dut horrela lan egiten, ez zait interesatzen. Eta horretara dator, poesia ardatz hartuta, *Katamalo* edo *Arrakalak* lako proposamenak egitearena. Momentu batean konturatzen zara, “poema hauek, liburutik aparte, egingo bagenitu zuzenean, musikagaz... zer gertatuko litzateke? Agian, beste efektu, beste erantzun bat jasoko lukete...”. Eta hori da gertatu dena. *Hemen gaude*-ren kasuan, edo *Kukubiltxogaz* egindako *Inorako bidaia* antzezlanaren euskarazko egokitzape-

nean, diferentea da; enkarguzkoak izan dira. *Hemen gaude*-n musika, antzerkia eta poesia sartzearena, oso natural sentitu dut. Euskaldunon historia kontatzeko proposamen bat da, eta ikuspuntua kulturgingintatik, kulturgileetatik hartu nuen; hau da, zer idatzi dugu, zer kantatu dugu, zelan antzetzu dugu euskaldunok geure historia...

Antzezlanak da, iruditzen zitzaigulako kontatu gura genuena kontatzeko modurik eta egokiena horixe zela.

—**Genero kontuan, poema-liburu biren ostean, *Errotik* nobela plazaratu zenuen.**

—*Errotik*-en kontatu gura nuen istorioa oso argi neukan, hurrengo pausoa zelan kontatu erabakitzea zen. Luzaroan gogotan egon ostean, konturatu nintzen oso

## “Uste dut sorkuntza ez dagoela inolaz ere krisian; paradigma barri batzuk sortu beharko ditugu, hori bai!”

zaila zitzaidalako hori poesia bidez kontatzea; hari narratiboa zeukalako. Zergatik ipuina pertsonaiak oso definituta banituen... Antzezlanak? Iruditu zitzaidan narratiboegia urtengo zitzaidalako. Kontatu gura nuen, alde batetik, Euskaldunako gatazka, baina bestetik, batez ere, alkar asko maite duten pertsona bik zelan berandu den arte ez dioten alkarri kontatzen sentitzen dutena. Tes-tuinguru dramatiko, tragiko batean. Argi nuen, pertsonaje nagusi bi horien artean kontatu behar zutela istorioa, orduan, hori kontatzeko generoa edo jantzia nobela da, narrazio luzea delako, azkenean.

—**Zeure talaia berezi horretatik, zer deritoxu euskal literaturaren osasunari?**

—Konturatu barik, ia inork ez dakiela, Edorta Jimenezek eta biok badarogau lau urte *Inakurrieran* saioa gidatzen, EIErena, Bizkaia Irratian. Lau urteotan ikusi dugu-

na, azterketak oso luze joko luke, baina gitxi gorabehera: ahots eta ikuspuntu diferenteetatik, eta gai diferentei buruz idazten ari garela. Badaude liburuak kezka kolektiboari erantzuten dietenak, eta badaude, agian, gehiago, aspaldi honetan, norbanakoaren kezkei erantzuten dietenak. Seguruenik izango da, aspaldiko urteetan botere ekonomiko eta eskuindarrak bide-

ratzen ari den jendarte ereduaren eraginez. Gero, oraindik ere, idazten diogu gure Euskal Herriari, distantziatik bada ere. Asko ugalduta 36ko altxamendu faxistaren inguruko eta memoria-historikoaren inguruko liburua. Oso aipagarria da, saiakeran liburu asko publikatzen ari garela; bereziki poztan nau, iruditzen baitzait oso garrantzitsua dela gogoeta plazaratzea. Uste dut sorkuntza ez dagoela inolaz ere krisian. Gurea herri gatazkatsua da, beti izan da, gatazka politiko, sozial eta kultural handikoa; nik uste, horrek asko bultzatzen gaituela idaztera. Horrez gain, kontzientzia bat badaukagu, idazle askoren artean, testigantza bat emon behar dugula, eta konpartitu behar dugula hori euskaldunon artean; gure, bakoitzaren ikuspuntutik, gure saioan bizitzen ari garena. Agian, badaukagu gabeziatxoren bat ere: egun-egunekoari

baino, 5-10 urte lehenagokoari idazten ari gatzazkiola. Esan gura dut, urgentziatzko literatura ez gara egiten ari. Egia da, mundu osoan ere hainbat gatazka bizitzen ari direla, “garela”, eta badirudi manikeoak edo izateko beldurrez, ez garela ausartzen horri buruz idazten. Agian, idatziko dugu hemendik eta hamar urtera! Ostera, uste dut, ahalegin hori egin beharko genukeela. Ez dago zertan idatzi beti literatura bat hemendik eta 200 urtera iraungo duena; ondo dago, baina egunean-egunean gertatzen ari denari buruz ere bai. Ni asko poztu nau Harkaitz Zubirik *Etxekalte* idaztea, lanean heriotza eragiten duen amiantoari buruz... Halere, saiakeran bagabiltza nahikotxo egunerokoari buruz idazten; fikzioan ez hainbeste. Ahotsenean ere aipatu genuen: musika eta literatura aldetik zein aniztasun daukagun gaur egun euskaraz! Beti egongo da jendea faltan botako dituen zientzia-fikziozko liburu gehiago eta... Ni horrek ez nau hainbeste kezkatzen. Uste dut guk gure artean alkarri eragiten diogula; irakurtzen dugu batak besteak idazten duena, gehienok, badaude halako batzuk ez dutenak irakurtzen halakorik... Horrenbestez, badago halako “konpetentzia”-edo, oso sana dena; alkarri eragiten diogu. Oso interesantea da! Nire ustez, behintzat, sorkuntza ez daukagu krisian. Paradigma barri batzuk sortu beharko ditugu, hori bai! Zeri buruz idatzi, urgentziatzko literatura hori egin ala ez e.a. Baina, uste dut geldi ez gaudela! ○

### Esku artekoak eta...: “Gogoan iltzatuak dokumentala”

—**Orain zehazki zabilta? Baduzu zerbait esku artean? Egitasmorik...**

—Umea daukat esku artean orain. Bestalde, egia esan, ez. Lehen esan legez, oso argi eduki arte zer kontatu eta... Enkarguzko lanak egiten ari naiz, baina neure-neuretik... beno, enkarguzko lanak ere neureak dira, baina... Egia esan, pelikula-dokumental bat grabatzen ari gara, *Gogoan iltzatuak*

deitzen dena. Euskarazko kantugintza ardatz hartuta, letraren eta musikaren uztarketa horretatik euskaldunon imaginarioan dauden kantu horiek aztertu gura ditugu; egileak batera, idazleen eta musikarien artean sortutako kantuek zer eragin izan duten eta duten jasotzen ari gara: idazleei alkarriketak grabatzen, musikariei ere, baita hartzaileei ere. Adib.: Bide Ertzean eta

Jose Luis Otamendi, eta Bide Ertzeaneko kantu horien zaleei alkarriketak grabatzen, eta bakoitzaren ikuspuntua jasotzen ari gara. Hori kontu nezakeen fikzio eran, asmatuta, edo saiakeran, baina kasu honetan, iruditu zait hori kontatzeko pelikula bat dela formato egokiena. Eta orain horregaz nabili; bestalde, etortzen zaizkigun enkarguzko bestelako lanak egiten ere...



## Kale umoretsuak

Iragan maiatzean barrea eragin ziguten artistek Leioako kaleak hartu zituzten, eta irriak ez zigun aurpegitik ihes egin lau egunetan. Hamaika arte-disziplinagaz gozatu genuen, besteak beste: bihurrikariak, aktoreak, pailazoak, magoak e.a. bertan izan ziren. Honako irudiak ikusi, eta barriro ere, irriño atsegina aurpegian margotzen zaigu, eta gu horri eusteko ahaleginetan; behintzat, datorren urtera arte!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**







**Saski ekologikoak** > solotik sistemari aurre eginez

## Lurra jorrazeko beste modua, elikatzeke beste bidea; bizitzeko bestelako eredua

**Orain dela urte batzuk Aiara aldeko baserriarrek orduko nekazaritza irauli zuen ekoizpen eta elikadura modua bultzatu zuten; baserri produktuak sortu eta zabaltzeko modu *logikoa* eta beharrezkoa, askoren ustez. Eta, noski, gurera ere, logikaren indarra heldu da.**



Orain urte bi hasi ziren eskualdean sasiak

**Modatik** haratago doan kontua da honakoa; zer jaten dugu, eta nork ekoizten du jaten dugun hori. Azken urteotan, ekologikoak ei diren produktuak erosi, eta kontsumitzea usadio bilakatu da gurean; sarri, konfiantza handiagoa eskaini ohi diegu produktu horiei. Halere, izendapen horrek ez die arestian aipatutako zalantzei erabatean erantzuten. Izan ere, nahiz eta ekologiko horiek erosi, ez dugu jakiten nola eta nork ekoiztu dituen; mer-

katuratze prozesuak ez baitu hori ahalbidetzen. Hortaz, zalantza horiek argitzeko asmoz, eta bestelako eredua sortzeko helburuz, martxan daude gurean, kontsumo

taldeak: inguruko ekoizleek produktu kimikorik gabe ekoizten dituzten produktuak ingurukoei zabaltzean datza

### Produktu kimiko barik ekoiztako produktuak doaz saskietan

proiektua. Ekoizteko era honek gurean nagusi den ekoizpen-ereduari aurre egiten dio; produktu kimikoen erabileraren bidez ugariago ekoiztea saihesten baita. Horrela, kontsumo taldeak agro-ekologian oinarritzen dira; produktu osasuntsuak dituzte helburu. Bestalde, kontsumo eredu horrek merkantilismoaren sa-reagaz amaitzen du; kontsumitzen dena bertakoa da, bertan zabaltzen baita. Horrela, merkatu neoliberalaren katea apur-



Udaberri eta uda aldean produktu ugari ekoiztu ei dira, eta saskian doaz

tzen da. Horrez gainera, kontsumo proiektu horretan, ekoizle eta kontsumitzailearen arteko harremanek sekulako garrantzia dute; euren arteko konfiantza, baita emole zein hartzailearen artean hartzen dituzten konpromisoek ere garrantzia dute. Horrelako eredua zabaltzeko, ezinbestekoak dira ekoizle zein bazki-

de, kontsumitzaileen, arteko babes eta konfiantza.

#### Aiaratik gurera

Orain urte batzuk hasi ziren kontsumo taldeak martxan Aiara aldean, eta ordu-tik, Euskal Herrian barrena zabaltzeko, baita gurean ere. Gaur egun, Sopelan tal-

de bi daude, eta Getxon beste bat, nahiz eta beste batzuk ere martxan diren. Kontsumo talde horiek harrera ona izan dute herrian, eta gaur egun, guztira 40 familia inguruk kontsumo taldeetan parte hartzen du. Halere, badira, horretan aritu gura duten beste nekazari batzuk. Hori bideratzeko asmoz, nekazal munduan jarduten duten zenbait lagun batzen hasi da Uribe Kostan; oraindino, taldea osatzen dabilta. Taldearen helburua: nekazarien arteko harremanak egin, eta eskualde

### Saskien ekoizle eta bazkideen arteko konpromisoek garrantzi handia dute

mailan horrelako proiektua sustatzeko azterketa egitea da, baita ekoizle agro-ekologikoen presentzia ugartzea ere dute xede nagusi. Luzea da elikadura eta gizarte eredua iraultzeko bidea; batzuek baina, daborduko hazia ereiteari ekin diote, hura maneiatu barik, lurrari berea egiten uzten. Txikitasunean urrats handiak egiten hasi dira; gurean, jada, martxan dira bestelako ekoizpen, harreman zein elikadura ereduak. ○

**Gorka Arzuaga eta Lander Labajo** > saski ekologiko ekoizleak

“Uribe Kostan ez dago ia ekoizpenera bideratutako lurrik, administrazioak ez baitu horrelakorik bermatzen”

—Zein motibazioz murgildu zarete saski ekologikoen proiektuan?

—Ilusioa eta ametsak eroan gaituzte horretara. Hasieran, ni (Lander) lurra jorrazten hasi nintzanean, jendea generoa eskatzen hasi zen; eta nik prentsatzan nuen gura niokela jende horri generoa banatzea. Baina horiek guztiak ametsak ziren, ez genekien gauzatuko ziren; gainera hasiberriak ginen. Baina argi genukan sistema ez geneukala gustuko

eta kontzientzia politiko horrek eroan gintuen gauzak beste modu batera egitera. Amets horiek gauzatzen ari direla jabetzen gara jendea baserrirara, guregana etortzen dela ikusten dugunean. Interesa erakusten dute; gauzak galdetzen dituzte; eta hori sekulakoa da. Halere, proiektu hau amaibakoa da, orduan pauso txikiak gure ametsak elikatzen jarraitzen dugu.

—Zelakoa da proiektu honen garape-

na eskualde-mailan?

—Elkartzen hasi gara Plaza Beltzan lanean ari garenek, eta ibili gura dutenak ere, baina zabaltzeko behar da; jende asko interesatuta dago-eta, batzuek lurrik dituzte, beste batzuek ez. Lurren kontua garrantzitsua da gurean; izan ere, ez dago ia ekoizpenerako bideratutako lurrik. Administrazioak ez du bermatzen lurrik nekazaritzara bideratzeko blindatuko dituenik. Lurrik eraikitze-

daude, baina ez ekoizteko. Eta hori gurean, arazo larria da. Batzuen diru-goseak dirau.

—Zein da esperientziaren balorazioa?

—Oso ona, baina konplexua. Oso ondo; betetzen zaituen gauza delako; bestalde, konplexua, sasoi guztiak ez direlako berdinak. Ardura garrantzitsua dituzu; familia ugari elikatu behar dituzu, baina askotan soloa oso txarto dago eguraldia dela-eta; barbarako, euriagaz ezin zara solora sartu, baina saskiak bete behar dituzu. Askotan babes barik, bakarrik sentitzen zara. Gure ustez, garrantzitsua da kontsumo-talderen asanblada indartzea ere; bazkideek konfiantzaz gauzak esan ditzaten, eta gure lana hobetu ahal izateko. ○





**BETIKO**  
IKASTOLA

**Kalitatezko irakaskuntza euskalduna**

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



**Ikastolen Elkartea**

Deitu eta informa zaitez  
Tlf: 94 464 23 64  
94 464 33 07  
Fax: 94 464 22 05  
Helbidea: Artatza auzoa 84  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

**GAVRKO**



**GIZONENTZAKO  
MODA**

Telletxe 5  
ALGORTA  
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

## Cinegourland jaialdia Getxon

**Ekainaren 7tik 9ra** bitartean egingo da **zinema eta gastronomia** ekimena



Mugaritz BSO filmaren irudi bat

**Seigarren** urtez, aurten ekainaren 7tik 9ra bitartean Cinegourland Zinema eta ikus-entzunezkoen Gastronomia jaialdia antolatu dute Getxon.

Zinema eta gastronomia uztartzen dituen jaialdian, urtero legez, ekitaldi andana iragarri dituzte. Besteak beste: gaiari lotutako film eta dokumental emanaldiak egongo dira ikusgai (berbarako: *El pudding magico*, *El camino del vino*, *American cuisine*, *Solo postres* edota Felipe Ugarte eta Juantxo Sardonek zuzendutako *Mugaritz BSO* dokumentala, Andoni Luis Aduriz sukaldari ezaguna eta Felipe Ugarte musikaria protagonista dituen eta, hala, musika eta gastronomia uztartzen dituen, e.a.). Horrez gainera, "Zineko Pintxoak" izenpean udalerriko jatetxe eta tabernetan film-izena eroango duten mokaduakaz gozatzeko aukera egongo da, lehiaketarako izango dira gainera. Lehiaketan atalean, "Txokoen sekretua" deritzon herri-gastronomia txapelketa ere antolatuko du-

te (aurton, Ranero Klubaren erara presertatu beharko dute parte-hartzaileek bakailoa; Areetako Eskolen plazan izango da). Osterantzean, ez dira faltako gai nagusi biren gaineko mahainguruak (besteak beste: Tamarises jatetxean egingo den "Dastatzeko Menua abangoardiako sukaldaritzan" gaiaren gainekoa) ezta Al-

**«Gastronomiagaz lotura duten filmak eta dokumentalak, mahainguruak, lehiaketak e.a.»**

gortako Portu Zaharrea egingo den doako Gaueko Sardina jana. Bestelako ekitaldien artean, ibilaldiak eta kontzertuak ere aipa daitezke. Amaitzeko, VI. edizio honetako "Cinefilos & Gourmets" sariak hauei emongo dizkiete: Bigas Luna, Enrique Urbizu, Ruth Gabriel, Sacha Ormaechea, Jose Ribagorda eta A. L. Aduriz (Sanjoserren Jauregian egingo da sari-banaketa). ○

Info+: [www.cinegourland.com](http://www.cinegourland.com)

## XXIV. Blues jaialdia

Elvin Bishop, Dana Fuchs eta Joe Louis Walker **ekainaren 21etik 23ra** Getxon



Joe Louis Walker gitarra-jotzaileak eta abeslariak ekainaren 23an emongo du kontzertua

**Zilarrezko** ezteiak bete aurreko ekitaldia du aurten Getxoko Nazioarteko Blues Jaialdiak. Ekainaren azken aurreko aste akabuan egingo da eta hauek izango ditu artista nagusi: Jaialdiari hasiera emoteko, ekainaren 21ean (20:00), egunean, Elvin Bishopen (1942, Glendale; California) blues eszenako gitarra-jotzaile ezagunak eta rockaren munduan askok miresten duenak eskainiko du kontzertua; hurrengo egunean, hilak 22 (21:00), barikua, Dana Fuchsen (1976, New Jersey) eta bere bandaren txanda izango da, etorkizun handiko ahots indartsua duen abeslariaren taldea-

ren rock, soul eta bluesaren uztartzeagaz gozatu ahalko dute bertaratzen direnek; azken egunean, hilak 23 (21:00), zapatua, Joe Louis Walker (1949, San Francisco) gitarra-jotzaile eta abeslari ospetsuak itxiko du Jaialdia. Kontzertu nagusiok Algortako Bitorz Alai plazan izango dira eta sarrerak darduko salgai daude. Gainera, jaialdiaren osagarri diren blues sessions-ak Algortako The Piper's Irish Puben izango dira, The Romanticos (hilak 22, 23:00) eta Mr. Groovy and The Blue Heads-ek jardungo dute (hilak 23, 23:00); sarrera doan. ○

Info+: [www.getxo.net/es/getxo-blues](http://www.getxo.net/es/getxo-blues)

## alkarlanean > Ken Zazpi & EOS

Ken Zazpi taldea eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoa alkarlanean disko barria prestatzen dabilta. Zehaztasun handirik ez dute iragarri oraindino, halere egitasmoa urri-azarorako gauzatuko dutela aurreratu dute. Ostean, diskoa aurkezteko alkarregaz zenbait kontzertu emongo dituztela ere jakinarazi dute. Aldez aurretik adierazi duten beste kontuetako bat izan da, zuzeneko emanaldiok urte amaiera aldera izango direla, ziurrenik abenduaren 10etik 14ra bitartean, Donostian (Kursaalen), Bilbon (Euskalduna Jauregian), Iruñean (Baluartean) eta Gasteizen (Printzipal Antzokian) jardungo dute.

## sona hartzen > The Great Barrier

Madril Hiria Rock Lehiaketako (Rock Villa de Madrid) azken txanparako aukeratu zuten The Great Barrier taldeko kantu-sorta. Uribe Kostako kideek osatutako seikoteak orain urte bi inguru sortu zuen taldea, eta jasotako 800 talderen proposamenen artean Madril Hiria Rock Lehiaketako antolatzaileek hautatutako bost finalistetako bat izan da. Musika-lehiaketako accesita lortu du talde uribekostarrak azkenean. Aitziber Omagogeaskoa (ahotsa, gitarra), Iñigo Larrazabal (gitarra, koroak), Alvaro Barriuso (gitarra), Arkaitz San Martin (baxua), Claudio Pavan (bateria) eta Mari Carmen Guillenek (teklatura, koroak) osatzen duten pop-folk-rock taldeak ingelesez abesten du.

Info+: [thegreatbarrier.bandcamp.com](http://thegreatbarrier.bandcamp.com)

## diskoak

**Eratu**  
Eratu  
Autoedizioa / Mauka




Getxoko sanisidrotan entzun ahal izan genituen Gasteiz, Agurain eta Ondarroako kideek osatutako talde honen lehen laneko kantua. Diskoa 10 abestik osatzen du, eta diotenez, "melodia landuekin josiriko musika energetikoa egiten du". Kolaborazioetan, Juan Sangrek (Governors) Aitzol eta Aroa Lasak eta Oihana Ameskuak parte hartu dute.

**Instroak Vol.1**  
Joseba B. Leinor  
Autoedizioa



Sexty Sexers eta Sumision City Blues taldeetako gitarra-jotzaileak da Joseba B. Leinor. Berakoak bere beste taldeetan "lekurik ez zuten" zazpi pieza instrumentaltal dira *Instroak Vol.1* diskoan batu dituenak. "Folka, rocka, bluesa, erroak eta hautsa darie" eta webgune honetan aurki ditzakezu: <http://josebaleinor.bandcamp.com>

**Alfa y Omega**  
Gobeo Bay  
Baga-Biga



Joan den urtean Gasteiz aldean sortutako taldea "reggaea beste era batean egiteko asmoarekin dator". Taldekieetako batzuk Arawak eta Pototo taldeetan ibiltakoak dira. Disko bikoitza da aurkezten dutena, izan ere, *Alfa y Omega* diskoko abestiak dub estiloan izango dira *Alfa*, *Omega* y *Dub* disko gehigarrian.

etorri  
eta  
ikusii!

**MORIXA**

liburudenda

Alargorta 8 (Euskal Herria kalegoz bat)  
Tf. 94 491 68 05  
Algorta

Getxoko Andra Mari  
Gasolindegia

Txartel hau  
aurkezten baduzu  
**%50eko**  
deskontua  
izango duzu zure  
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean  
Tf. 94 430 15 00  
(15 eguneko epemuga)

**I**

**Iñaki  
Bixitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45  
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

## Bidegileetarako hautatuak


Bidegileak bildumaren **hiru sorta barri** aurkeztu ditu Kultura Sailak

**Orain 23 urte** abiatutako Bidegileak bildumaren 62, 63 eta 64 sortak osatu eta argitaratu ditu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Aurkezpenean Blanca Urgell Kultura sailburuak adierazi zuenez, *“Bidegileak Kultura Sailaren bilduma kuttuna da. Lehenik, euskaraz dagoelako. Bigarrenik, askotan abanturaz zeuden egileak ilunpetik berreskuratu dituelako. Hogeita hiru urteko historian, euskalgintzan aritutako 250 bat gizon-emakumeren bizitzak jaso dira bilduman. Eta hirugarrenik, biografiei kutsu pertsonal eta gizatiarra ematen saiatzen delako, maiz biografietuen abaide edo lagunek idatziak baitira”*.

Sorta bakoitzean euskalgintzan esanguratsuak izan diren eta ekarpen aipagarria egindako 4 pertsonari buruzko liburuak

**«Hiribarren, Etxenike, Altuna, Lete, Onaindia, Tovar, de Rijk, Trask e.a.»**

ruxka bana dago. 62. sortan, Juan Martin Hiribarren (1810-1866), Agosti Xaho (1811-1858), Bruno Etxenike (1819-1893) eta Joseba Altunari (1887-1971) buruzko biografiak batu dituzte. 63. sortan, Luis Bandres (1944-2009), Xabier Lete (1944-2010), Mario Onaindia (1948-2003) eta Joxe Migel Bidador-en




Xabier Lete da aukeratutako Bidegileak-eko bat

(1970-2010) bizitzen gaineoak. Eta momentuz azkenekoan, 64. sortan, Antonio Tovar (1911-1985), Yuri Zytsar (1928-2009), Rudolf P.G. de Rijk (1937-2003) eta Robert L. Trask-en (1944-2004) ibilbideak jaso dituzte. Igarriko zenutenez, oraingoan, nazioarteko hizkuntzalariak aurki daitezke, 64. sortan, hain zuzen ere: Tovar espainiarra, Zytsar errusiarra, de Rijk herbeheretarra eta Trask estatubatuarra. Beste berezitasunik ere badu, bidegile-en artean, idazleak eta hizkuntzalariak ez ezik, irakasleak, itzultzaileak, politikariak eta kantariak daude. ○

Info+: [www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net)

liburuak



**Aquella edad inolvidable**  
Ramiro Pinilla  
Tusquets

Aspaldi getxoztatu zen Pini-llaren nobelako protagonistista da Botas futbolari ohia; 1944ko Errege Kopan sartutako golak loriara eroan zuen baina, lesio batek ezindu utzi zuen. Kromoak gutun-azaletan sartzea du ogibide, kazetari batek proposamen tentagarria egin dion arte.



**Bienvenidos a tiempos...**  
Slavoj Žižek  
Txalaparta

Azken aldian sona handia lortu duen, Filosofian eta Psikoanalisian doktorea den Slavoj Žižek-en (Liubliana, Eslovenia, 1949) azken lana, *Bienvenidos a tiempos interesantes*, itzuli eta kaleratu du Txalapartak. Katu Arkonadaren hitzaurrea eta Imanol Galfarsororen azken-hitzak.

[kirola]

## Euskal Herriko futbol-kopa

Emakumezkoen futbol-kopa **abiatu da** eta **abuztuaren 26an** jokatu da **finala**



Info+: [www.ehkirola.org](http://www.ehkirola.org)

**Euskal Herriko** emakumezkoen futbol-talde onenek jokatu dute nazio-mailako kopa, bigarreniz; Euskal Herria Kirola elkarteak antolatu zuen iaz lehenengoz eta, arrakasta ikusita, aurten ekimena zabaltzea erabaki du.

Maiatzaren amaieran hasi ziren futbol partidak eta ekaina osoan luzatuko da koparen lehen fase hori. Bigarren fasea, barriz, abuztuaren egingo dute, eta finala, abuztuaren 26an.

Iaz baino lau talde gehiagok parte hartuko dute bigarren kopa honetan: Arrasatek, Eibarrek, San Inazio (Bilbo) eta Oiar-tzunek. Horrela, iazko beste zortzi taldeak lehiatuko dira: Athletic, Erreal, Lagunak (Barañain), Abanto (Zierbena), San Juan (Iruña), Aurrera (Gasteiz), Añorga eta Ipar Euskal Herriko taldeen selekzioa (Donapaleu, Donibane Garazi eta Mauleko taldeen jokalariek osatzen dute).

Baina talde guztiek ez dute jokatu hasieratik: *“Talde buru izaki daukaten mailatik, lehen laurak bigarren fasean*

*baizik ez dira sartuko Kopan, abuztuaren alegia”*, Euskal Herria Kirola elkartetik adierazi dutenez.

Gainontzeko taldeak haien artean lehiatuko dira bigarren fasea pasatzeko: Ipar Euskal Herriko selekzioa Oiar-tzunen aurka, Iruñeko San Juan Bilboko San Inazioaren kontra, Aurrera Arrasateren aurka

**«Euskal Herria Kirola elkarteak antolatzen du emakumezkoan kopa»**

eta, azkenik, Añorga Eibarren kontra. Daborduko jokatu dira lehen hirurak, baina azken partidarako eguna zehazteke dago oraindino. Iaz Athleticek irabazi zuen kopa, Errealaren aurkako finala jokatu ostean.

Euskal Herria Kirola elkarteak sortu zuten Euskal Herriko kirolariak, beraien bilgunea da eta oinarritzat dauzka *“Euskal Herria kulturala eta Euskal Herria kirolaria; beraz, kolore guztietako Euskal Herria kontutan hartzen ditu ligak, kopak eta txapelketak antolatzerakoan”*. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa  
Kirol  
moda**



**350** m<sup>2</sup>  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

**Lacofris, s.l.**



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

**Ander Larunbe** > La Unica lagunarteko eta Nafarroa Bizirik ekimeneko kidea

## “Ekainaren 16an Iruñean aldarrikatu eta ospatuko dugu Nafarroak bizirik dirauela”

**Ekainaren 16an jaiak eta aldarrikapenak bat egingo dute Iruñean, Nafarroa Bizirik ekimenak egun osoko jaialdia antolatu baitu. Zergatik eta zertarako, horren barri emon digu Ander Larunbek.**

—Iruñera deitu duzue ekainaren 16an, zer dela-eta?

—Aurten bosgarren mendeurrena betetzen da Nafarroaren konkistako data esanguratsuenetako batetik. Horren aurrean, beharra ikusten dugu konkistaren gaia jendarteratzeko: konkista izan zen, eta ez eransketa alaia. Aldi berean, ez dugu nahi izatea doluzko oroimen hutsa; erakutsi nahi dugu Nafarroak bizirik dirauela, nahiz eta konkista burutu zen eta ondorio lazarriak izan zituen, hau da, erresuma baten suntsipena: gazteluena, erakundeena eta populazioarena. Hori izanik ere, Nafarroak bizirik dirau eta 16rako ospatuko dugu: ez konkista, baizik eta Nafarroaren iraupena.

—Aldarrikapena izango da, zertarako?

—Nafarroa Bizirik ekimenak batzen ditu eragile askotarikoak eta azken urteotan historia arloan burutu lana kaleratu nahi genuen. Zergatik? Bere historia ezagutzen ez duen herria kondanata dagoelako lehengo akatsetan erortzera. Egungo egoerak nondik datozen jakin gabe zaila izanen dugu aurrera egitea. Bestalde, esan behar da beste herri asko konkistatu dituztela historian zehar, eta desagertu egin dira. Garai beretsuan Amerikara iristen ari ziren Europako mendebaldirrak eta herri indigena asko desagerrarazi zituzten; agian fisikoki ez erabat, baina bai euren kultura. Baina Nafarroaren kasuan ez da horrela; dena delakoarengatik



Info+: [www.1512-2012.com](http://www.1512-2012.com) eta [www.bizirik2012.net](http://www.bizirik2012.net)

gaurdaino iritsi gara gure hizkuntza, nor-tasuna eta kulturarekin. Harro egotekoa da, eta zabaldu eta bizirik mantendu behar da.

—Babes zabala izan du ekimenak, ezta?

—Bai, 80tik gora udalerrik agertu du babesa, baita eragile eta norbanakoek ere. Nestor Basterretxeak grabatua egin du

### “Nazio-martxa ere egingo dugu 16an: lau zutabe irtengo dira 17:00etan eta Antoniutti parkean elkartuko dira, elkarrekin jarraitzeko”

eta salgai dago ehun aleko seriea; 300 euroren truke erostea dago eta jaialdia ordaintzen lagunduko digu. Lip dub-a ere egin dugu eta jende askok parte hartu du; ikusteko: [www.bizirik2012.net](http://www.bizirik2012.net).

—Eta egitarauari dagokionez?

—Egun osoko jaialdia izango da eta goizean hasita izango dira kale-animazioa

eta artisau postuak. Gainera, herri-kirol erakustaldia eta herri-bazkaria egingo ditugu zezen plazan. Arratsaldean martxa nazionala izango da: lau zutabe aterako dira 17:00etan toki desberdinetatik eta Antoniutti parkean elkartuko dira, ondoren elkarrekin jarraitzeko. Kontzertuak egongo dira gero zezen planzan, Ba-

rricada, Su Ta Gar, Vendetta eta Goienetxe anaiekin. Gainera, bitartean peñak eta tabernak zabalik egongo dira. Aldarrikapena egin eta erakutsiko dugu Nafarroa bizirik dagoela. Bestelako ekimenak egingo dira urtean zehar, uztailearen 25ean adibidez, baina 16ko hau izango da ekimen gorena. ○

**Fredi Paia**

## Zenon Arteatx Aranguena Txomin

**Abendun zortzi urte** ixengo direz Zenon Arteatx ezetu nendune. Algortako Portu Zaharren ibiltzen zan, mahonezko frakkak ta koadrodun alkandora jantzite. Gure etxeko uzaba zan, ta hasikeran erderaz hasi bagintzen bere, arin itandu osten ia euskeldune ete nintzen. Baietz erantzunde amak txikerretan kantaten otsen bertso bota iosten brau!

*Perretxikotan nenbilenian  
Urkiolako basuen  
Dama gazte bat topadu neban  
Elorri baten onduen  
Gaztie nintzen zoroa nintzen  
Jarri nintzakon albuen  
Amantaltxue zabaldu eta  
Altzoan hartu ninduen*

Beste bertso beteaz erantzun neutsen nik eta alkarrerri eskua estutu geuntsen. Nire uzengan barri emon osten, autortu osten Zenon eukala uzena, Portu Zaharren Txomin esaten baeutsen bere. *Tripones hay muchos, pero Zenones pocos!* Bota iaun begiez kinu in bitarten.

Zenon Munittibarreko Elortza etxen jaio zan 1920ko apirilen 12n. Eta aurtengo apirilen 24n jon dakun gure arteti. Bere aite otzaragile edo zesteru ixen zan, beste ogibide betzun arten. Ondarruko barkuntzet langosta-otzarak itez ganera, errotan bizi zien eta.

Zenon sasoi hatako ikaslerik onenataringo ixen ei zan herriko eskolan. Hatan bere, seintxu zala Karrantzara erdere ikisten jote opetsi otsen herriko abadek. Ordun, bizimodu atarateko bide ona zan ha, eta aitek baimena emondakon harako bide koxi iaun. Bertan abade bat zerbiduten ibili ta gerre bizte toke dakon. Miliziano asturianuk abaden bile jon ei zien eskapan ebizela, fusilateko intentzinoz aiez. Erreka baztarreko zilo beten ostute libra zan abade. Zenon



Zenon Munittibarreko Elortza etxen jaio zan 1920ko apirilen 12n

bakarrik egon zan etxen milizianuk ailegakeran, eta zaplastekon bat edo beste emon baotsen bere, ondo eutsi otsen bere papelari.

### «Akabuko egunera arten gogon okin iaizen amak irekatsiteko euskel kantak»

Handik gitxire bonba betek ondoren errementa ta belarri beteko entzumena galdu iaun betiko.

Gerre akabakeran Ibaizabal itsasadarreko fabriketan topa iaun beharra. Baie berak esaten iaun lez, denborak eurrera inde ikusi iaun enkargaduk bere ez eukala jaka barririk erosteko beste. Halanda ze, beharleku barri topaten jon zan Gernikera, oin Iberdrola ta ordun Hirurak Bat uzena eukan enpresara. *Hango begibakarra ixen nintzoan ni!* Esaten iaun barre zantzoka. Presenta zien duztin

arten bera koxi euden beharrerako, eta Uribe Kostan kontadorek zenbatu eta ko-braten para zan.

Orduko morosorik handinek txakurrek soltun okiten eudezan baserritarrak ei zien. Txakurrek hainke ingo ete otseen bildurrez beharginek ez zien kontadorek zenbatutera sartzen, ta urtetan paga barik ibiltzen zien bertakok.

Hori duzti Zenoneaz akabe zan. Ixen bere, Zenonek berak esplikatu osten modun, Munitabarren, txikerretan, txakurrek dominareko teknike ikisi iaun. Bere seintzaron postuare iten ei zien txakurre nok arinau domina. Besokaz kinu, eskuzez txalo, eguno atzera in barik te txakurreri begiri sakon aditute dominaten ei zien piztik. Badau kondizino bat, txakurra ez da jo ber, ezpabere ataka iten daulekon.

Portu Zaharren etxe in de zoriontsu ixen zan Txomin famelikon babeseb. Irribarre agon eukala jon zan arten. ○



[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



**portu zaharra bar**

Portu Zaharra kalea 35  
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)  
Tf. 94 460 20 33  
portuzaharra@portuzaharra.com  
www.portuzaharra.com



**SOLAETXE**

Eguneko menua      **Jatetxea**      Karta  
Asteburuko menua      Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



**La Triangu.**

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



**berezi**

Hanburgesak      Ogitartekoak  
Sanwichak      Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO  
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



**BODEGUILLA BUTRON**

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)  
94 430 01 74  
www.bodeguillabutron.com



**txakoli mota gane Tx.**  
txakolina

Leioa-Unbe errepeidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio  
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



**UNAI TABERNA**

C/ Alangobarri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



**CAFETERIA COSMOPOLITA**

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo  
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



**JAN-TOKI ORMAZTEBAL**

Eguneko menua  
Menu bereziak  
Karta  
Erreserbak:  
94 476 2389  
607 21 89 61  
LUTXANA-ERANDIO



**GURE ETXEA taberna**

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



**Asador Cervecera BERANGO**

Oilasko erreak, indabak, txuletoia, arraina trianguetan  
Menu bereziak enkarguz - Gabonetako Menu bereziak  
Pollo asado, txuletones, alubias, pescados a la brasa - Menus especiales por encargo - Menus especiales Navidad  
EGUSKIZA 32- 48940 BERANGO- Erreserbak 658 89 56 93- Tf. 94 668 13 34



Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

**94 491 13 37**  
**publiuk@aldizkaria.biz**

[pintxotan]

# Alberjinia bakailaoagaz

gazitasunaren gozotasuna dastagai



Piperradak zapore ederra emoten dio pintxoari

**Alberjinia** hainbat eratan gustuko izanez gero, honako pintxoak zure begikoa izango da. Berenjenaz gainera, bakailaoaren gesalak, eta koloretako piperradak sekulako zaporea piztuko dizute ahoan. Jakin badaukazu, mokadu hau gozatzeko Portu Zaharreko tabernan abagune duzula; horrez gain, baina, etxean egiteko aukera ere badaukazu. Horrenbestez, adi, datozen lerrootara. Hasteko alberjiniak xafla bat moztu behar dugu; xerrak zentimetro bat edo bikoa izan behar du. Moztu ostean gatza egin eta piperbeltza botako diogu, jarraian, alberjiniak arrautzatzatu eta oliotan frijituko dugu. Behin frijituta, xukatzen utziko dugu, eta ondoren ogi-xaflaren gainean jarri behar dugu. Alberjiniari, gainera, bakailao

keztatuta ipiniko diogu; bakailaoak zati txikietan moztuta egon behar du, ondoren, esan bezala, alberjiniak xaflaren gainean jartzeko. Tomate zati bat jarriko dugu bakailaoaren gainean. Dagoeneko, pintxo ederra izango badugu ere, azken ukitua falta zaio honi; horrela, pintxoari amaiera emateko piper gorri, berde, eta tipulagaz egindako piperrada ederra jarriko dugu pintxoaren muinean; pastelaren ginga izango dena. Horrela, esku artean dugun pintxoak zapore eztanda eragingo digu ahoan; alberjiniaren leuntasuna, bakailoaren gazitasuna, eta piperradaren gozotasuna: ahogozo itzela. o

**Osagaiak:** Berenjina, bakailao kezkatu, tomate, piper gorria, piper berdea, tipula, arrautz bat, olio, gatza eta piperbeltza.



**LAIAK Taberna**



**BASARTENA URDULIZ**

Teléfono: 946 761 128



**JUAN-MARI**  
Harategia eta txarkuteria




LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25  
**AREETA**



**KONTXI ZUAZUBISKAR URDAITEGIXA**

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!  
Alangobarri 10, ALGORTA  
Tf. 94 491 02 93



**TXIBERRI edantokia**  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
Tf. 94 676 07 15



**Taberna Berri**

Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf. 94 430 64 93



**ITXASGANE**  
prentsa • aldizkariak  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Ariñuze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**María Jesús**

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarrí 10  
Tf. 94 491 08 21  
ALGORTA

**HARTU TXANDA**

**GOIZEAN**

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak


Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
Tf. 94 430 22 13      Tf. 94 460 02 88  
GETXO      ALGORTA

**Turikaldaí**

JOKIN GARATE BAYO      KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9      Aingeruaren etorb. 4B  
T. 491 14 87      (sarrera, Jata Mendia) T. 400 01 87  
48990 NEGURI      48990 GETXO

[horoskopoa]

<p><b>URA</b></p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Entseguak hasi dira akelarrea prestatzeko, baina zure kabuz prestatuko ei dituz dantzak. Ados, baina kontuan izan bachata doinurik ez dela dantzatzan akelarretan.</p>	<p><b>OTSOA</b></p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Amaitu dituzu ditxosozko azterketak azkenean, zorionak! Orain notak jakitea besterik ez da geratzen. Emaizta edozein dela ere, ospatu eta ondo pasa, merezi duzu-eta!</p>	<p><b>ADARRA</b></p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Beti kexatzen zara beroa dela-eta, baina aurten ez daukazu arrazoirik, eguraldi traketsa egin du-eta azkenaldian. Tira, atera bainujantzia, irrikan zaude-eta...</p>
<p><b>AITZURRA</b></p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Jo eta su lanean ibili zara solano eta euriteek on handirik ez zioten egin maiatzean. Lasai, badator beroa eta laster hasiko dira heltzen tomateak; goxo-goxoak aterako zaizkizu.</p>	<p><b>HOSTOA</b></p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Negu osoa eman duzu alferkerian eta orain gimnasioan sartuta zabilzta, kirola eta dieta egiten duzu zoroen moduan. Sentitzen dugu, baina mirariak egiteko berandu da.</p>	<p><b>EGUZKIA</b></p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Ilargiaren eragina izango da agian, baina oso erakargarri egongo zara datozen asteotan. Jende guztiak nahiko du zugaz ibili eta gura duzuna egingo dute, horrenbestez, aprobetxatu.</p>
<p><b>GARIA</b></p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Gurasoen etetik alde egin duzu eta orain etxeko lanak zuk zeuk egin behar. Supermerkatuaren lehenengo joango zara eta mila buelta emango duzu. Galduz gero kuxazainari deitu.</p>	<p><b>LASTOA</b></p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Aspaldi ikusi bako lagun batek hots egingo dizu beragaz lotzeko egunen batean. Lehen zure atzetik zebilen eta orain ez dakizu zer gura duen. Sorpresaren bat hartuko duzu agian...</p>	<p><b>IRATZEA</b></p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Lehengusuaren ezkontzara joango zara eta izeko guztiak dantzan ibiliko zara guztien aurrean. Hurrengo goizean ezagun guztiek barre egingo dizute. Esan nizun facebook oso arriskutsua zela...</p>
<p><b>META</b></p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Asteburuan lagun guztiek daukate plana: ezkontza, jaunartzea... Eta zu bakarrik. Asperitu gura ez baduzu, hobe duzu batean ezkutuka sartu, baina kontuz, inork harrapatu barik...</p>	<p><b>HAZIA</b></p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Beti azken unerako uzten duzu dena, baita oporren antolaketa ere, eta orain, bidaia guztiak garestiegi daude. Azken orduko eskaintzak begiratu, beti topatzen da zer edo zer.</p>	<p><b>NEGUA</b></p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Kea ateratzen zaio zure buruari, lanez gainezka zabilzta-eta. Lasai, ez estresatu, laster baitator uda. Hartu arnas eta abestu Pirritx eta Porrotxek bezala: irrifarre laranja bat margotu diogu eguzkiari...</p>



Kopiak  
**SALGAI**  
UK aldizkariaren  
bulegoan



Uribe Kostako  
aldizkariaren  
ekoizpena



## gaztetxoak &gt; denborapasa

## LUMA aldizkariaren eskutik

Erdiko letrak falta zaizkie hiru multzo hauetako hitzei. Letra horiek berdinak dira multzo bakoitzean. Zuri dagokizu zein diren asmatzea.

DIA	□	OIA
GAU	---	ERO

KON	□	ATU
LAN	---	TUA
PRO	---	ATU

ATZ	□	IKO
BAS	---	IAK
HAS	---	ATU
PIP	---	ADA

## gaztetxoak &gt; bilatu eta irabazi

*Zein herritako jai nagusiak dira sanjuanak?*

- **Getxo, Plentzia, Urduliz eta Lemoiz**
- **Barrika eta Leioa**
- **Erandio, Sopela eta Gorliz**

**La Gusana** liburudenda SARIA  
 Tellagorri plaza, Algorta  
 Tf. 94 491 14 12 **lagusana**

> Aurrekoaren erantzuna: Pirritx, Porrotx eta Marimotots  
 > Irabazlea: **Xabier Uriarte\***

\*deitu telefonoz: 94 491 13 37

## ez horren gaztetxoak &gt; non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal barri honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA **Oinutsik**  
 kontsulta podologikoa  
 Zubigane 4, Sopelana  
 Tf. 94 404 74 20  
 oinutsik@euskalnet.net

> Aurrekoaren erantzuna: Gartxot  
 > Irabazlea: **Unai Kuartango\***

\*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



AITOR ETXEBARRIAK UTZITAKO ARGAZKIA

**Bittor Egurrola**

## SOPELAKO FRONTOIAN, 1982

'Sociedad Casino Sopelana'-k hainbat urtetan antolatu zuen eskualdeko pilota-txapelketa, palaz eta eskuz. Partidak urtean zehar jokatzaren ziren eta finalak herriko San Pedro jaietan; lau final izaten ziren (bi eskuz, bi palaz), lehen eta bigarren mailako afizionatuak. Final egunean, sari banaketa eta luntxa egiten ziren elkartearen kontura. Argazkian ditugu 1982ko irabazleak, elkarteko batzordekide batzuk eta abade bat; honek, ohitura zenez, eguerdian etenaldia eginda, 'Angelus' otoitza egin zuen. Jadraque-Elbis, Ascen Beitia-Barañano, Ricardo Arrien-Cervera, Tapia anaiak dira Sopelako frontoian ibilitako bikote ospetsu batzuk.

**Zutunik:** ?, Ernesto Alonso, Jadraque, ?, Lopategi, Alfredo, Jesus Mendibil (batzordekidea), Camiruaga, Luis M<sup>a</sup> Urkiaga (presidentea), Fano, Aitor Etxebarria (diruzaina), Jose Antonio Torrontegi "Bateko" (batzordekidea), Mariano Torre.  
**Makurtuta:** ?, Torre, ?, Batis, ?, ?.

**ANE GABARAIN** > aktorea

“Beharrezkoa da tarteka parranda egitea, berdin dio non”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **EITB**



**Defini egizu zeure burua berba bitan.**

Oso maja.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

Orain gutxi eman dute Hitchcock-i buruzko zikloa eta ikusi dut *Vertigo* filma. Gustura egingo nuke Kim Novak-ek egiten duen papera.

**Animalia bazina zein izango zinateke?**

Arraina agian, ingurunez aldatzeko, diseinu polit batekoa.

**Zein topiko gorroto duzu antzerki munduan?**

Kolore horiari buruzko sineskeriak ez ditut batere partekatzen.

**Eta aktoreek asko ligatzen dutela esaten duen hori, egia da?**

Batzuk bai, baina denetik dago, beste eremuetan bezala. Hori bai topikoa!

**Zein da zure ametsetako bat?**

Dirua izan eta bidaiatu harat honat. Diruaz ez kezkatu eta urte bat edo bitan bidaiatu.

**Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?**

Bizirik balego nire txakurra eroango nuke, eta akabo, besterik zertarako?

**Eguna ala gaua?**

Eguna, argiak mugitzen nau, martxan jartzen nau eta energia ematen dit. Baina gaua ere gustuko dut.

**Zerk emoten dizu beldurra?**

Gauza askok, adibidez, olatu handiek; nik uste txikitari esperientzia txarren bat izan nuela.

**Parrandarik ederrenak non?**

Edonon, behar-beharrezkoa da parranda egitea, tarteka egin behar da eta berdin dio non, konpainia onean.

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?**

Ulia mendiko txokoren bat. ◦

**LABURREAN**— Hala da, bai, Jaione da, *Bi eta bat* telesailekoa. 20 urte igaro dira, baina sasoitsu dabilza Joselontxo eta konpainia, kapitulu barriak emoten hasi dira-eta ETB1en. Ane Gabarain (Donostia, 1963) aktoreak egiten du Jaionerena, askok gogoan izango duenez. Urteak joan badira ere elkarregaz lan egiteari sekula utzi ez baliote bezala sentitzen dira hiru aktore protagonistak: Ane Gabarain bera, Jose Ramon Soroiz eta Elena Irureta. Orduko kimi-ka berbera daukate eta nabari da pantailaren bestaldean, izan ere, arrakasta lortu dute hamarkada biren ostean.

**getxo kirolak street kulture**

**→ EKAINAK 8-9 JUNIO**

**KODIGO NORTE LIVE!**

EKAINAK 8 JUNIO		EKAINAK 9 JUNIO	
BIOTZ ALAI PLAZA		TELLETXE	
19:30 - 21:30		10:30 - 13:30	16:30 - 19:30
-Inaugurazio jaia (musika, dantzak eta erakustaldiak)		-Saskibaloia/Baloncesto	-Parkourra
-Fiesta inaugural (música, bailes y exhibiciones)		-Futbola	-Skatea
21:45		-Tenisa	-Slack Line
-Kontzertuak/Conciertos		-Patinajea online	-Rokodromoa
<b>Revolta Permanent + KODIGO NORTE</b>		<b>BIOTZ ALAI PLAZA</b>	
		19:30 - 22:30	
		-Break Dance (Crazy Hospital)	
		-Dance Hall	
		-Beatbox (MiiniMi)	
		-Dj's (Plata Deeja's)	

Parte hartu ekintzetan eta ezagutu Getxoko komertzioetako promozioak!  
¡Participa en las actividades y disfruta de diferentes promociones en los comercios del municipio!

LAGUNTZAILEAK/COLABORADORES:  
Club Baloncesto Getxo, Club Fútbol Getxo, Club Tenis Fadura, Club de Patinaje Online de Getxo, Euskadiko Parkour Elkarte, La Kantera Skate Eskola, Sokan Orekan Kolektiboa





Bizkaiko

25 URTE

# urtxintxa

eskola

Ekainaren 8an eta 9an  
Jardunaldiak BILBOn

**Bakearen bidean  
eta gatazka egoeretan,  
aisialdia giltza!**



BilboRock Aretoa

**JARDUNALDIAK**  
Ostiralean eta larunbatean

**KONTZERTUA**  
ITZIARREN SEMEAK + erromeria

25. urtemugako bazkaria

**BAZKARIA**  
**BERTSOKOPA** eta **EKITALDIA**

Larunbatean 14:00etatik aurrera

info+: [www.urtxintxaeskola.org](http://www.urtxintxaeskola.org)